




Udal hauteskondeek nobedade ugari eragin dituzte Durangaldeko udaletan, eta handiena, zalan-tzarik barik, Durangon. 40 urtean EAJ agintzen egon eta gero, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak ezkerreko gobernua osatzeko aukera dute. Domekan elkarregaz ospatu zituzten emaitzak, eta da-goeneko hasi dira akordiorako kontaktua lantzen. Aldaketa haizeak datoz Durangora. • 4-11

Berbaro elkarteak, 30 urtean Durango euskalduntzen

Durango | Berbaro elkarteak hiru hamarkada daramatza Durangon euskaratik eta euskaraz lanean. Ospakizun eta gogoeta urtea izango da. Biharko, ekainak 1, egun osoko jaia antolatu dute.
• 2-3. orrialdeak



LEHIOR ELORRIAGA



Bidezabal, garaipen bila onenen artera itzultzeko

Durango | Landakoko atletismo pistak lehen mailako jardunaldia hartuko du domekan. 28. orrialdea



IURRETA

Lanbide Heziketa

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa

“Derrigorrezkoa
plaza ziurtatzeko”

AUREMATRIKULA
Ekainaren 3tik 14ra

Euskaraz ikasi eta lan egin!

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Telekomunikazio Instalazioak



MATRIKULA
Uztailaren 11tik 17ra



“Bozgorailua duten eragileek euskara erdigunean jarri beharko lukete”

Hiru hamarkadako ibilbidea egun osoko jaiagaz ospatuko du Berbarok, zapatuan. Markel Sanchez Berbaroko kudeatzaileagaz elkartearen eta euskalgintzaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz jardun du ANBOTOK

DURANGO • JONE GUENETXEA

Irailen hasi zinen Berbaron lanean. Ikasturtea indartsu hasi genuen. Irailean hasi eta berehala Euskaraldiari ekin genion. Urtariletik aurrera, ostera, 30. urteurreneko kontuekin gabilta.

Zelako lantaldea aurkitu duzu?

Berbaro oso egituratuta eta errotuta dago Durangon, erreferente bat da euskara arloan. Horrez gainera, zortzi langile ditu eta urtean zehar 100 hezitzailetik gora aritzen dira elkartearen. Horrek guztiak potentzialitate handia du. Bestalde, lantalde oso ona eta jatorra aurkitu dut. Askotan eurei aurrez aurre esan ez arren, pozarren nago lantaldean.

Euskaraldiagaz, zu zeu zein sentsazioz geratu zara?

Jende askok parte hartu du, 3.000 pertsonak baino gehiagok, eta hori pozgarria da. Hala ere, esango nuke indar gehiago izan duela hartu-eman afektibo sendorik ez dagoen harremanetan; merkataritzan, esate baterako. Uste dut administrazioan aldaketarik ez egoteak jendea ez duela animatu hizkuntza ohiturak aldatzera. Euskaraldiak, eraginkorra izateko, aldaketa global baten parte izan behar du.

Berbaro elkartearen hasiberria izan arren, elkarte moduan hiru hamarkada hauetako balorazioa egingo zenuten.

Berbaron entzun dudanetik eta kanpotik bizi izan dudanetik berba egingo dut, eta, beraz, oker banabil zuzendu nazatela. Esango nuke

elkarteak hainbat fase izan dituela, eta mugari garrantzitsuak ere bai. Hasieran euskararen aldeko mugimendu sendo bat sortu zen Durangon. Aurrera begira, egonkortzen joan zen heinean, gazte arloari garrantzi handia eman zitzaion, Haur Literatur Aretoa eta udalekuak euskaraz sortuta, besteak beste. Gainera, elkarteak euskaraz bizitzeko espazioak ere sortu zituen. Eraz, Anboto, taber-

Gogoeta bat egin gura dugu ekainaren 8an, Pinondon. Euskaltzale guztiak daude gonbidatuta”

na, Plateruena, txokoa... Durangon euskara heldu ez den esparruetara heltzen ahalegindu da Berbaro. Aurrerantzean ere alternatiba horiek sortzen jarraitu gura dugu.

Autokritika eginda, Berbarok zertan ez du asmatu ?

Hasierako mugimendu izaera hori, militantzia hori, apaldu egin da. Eragile askori gertatu zaie hori, bere alde on eta txarrekin. Lantaldea profesionalizatzeak gauza asko egiteko aukera ematen du, baina pena da hasieran egon zen parte-hartzea ez egotea. Gai honen inguruan hausnartu beharra dugu. Beharbada guk geuk ere ez genituen parte-hartzerako behar beste aukera emango.



Markel Sanchez Zelaia
Berbaroko kudeatzailea
Durango | 1991

baina ez da lehentasuna, inondik inora. Azken bost urteotan atzerapausoa eman da, batez ere interneten. Hainbat tokiko webgune sortu dira, ia guztia erdaraz argitaratuz, euskararen kaltetan. Bestalde, alderdi politikoei dagokienez, azken kanpainan ikusi dugu euskarari ematen dioten garrantzia. Botoak jokoan daudenean, ele bitan edo erdara hutsean jarduten dute. Oso alderdi gutxi eta momentu zehatzetan plazaratu dituzte mezuak euskara hutsean. Hautagaien sare sozialetan, orokorrean, erdara izan da nagusi. Bozgorailua duten eragileek, hau da, hedabideek, alderdi politikoei, elkarteek... herri honetan gutxienez ele bitan egin beharko lukete eta euskara erdigunean jarri beharko lukete. Euskararen alde egin beharrean kontra egiten ari dira, euskararen alde daudela esan arren.

Hemendik aurrerako erronkak?

Berbarok euskara zerbitzuan udalean eragiten jarraitu behar du, administrazioa euskaldundu arte. Gazte arloan, aisialdia sortzen jarraitu behar du. Jolasaren bitartez, lotura afektiboak sortzen dira eta hori euskaraz izatea inportantea da. Aisialdian, geroago eta gehiago, sareetan dabilta gazteak. Esparru hori basamortua da euskararentzat, eta hor ere eragin behar dugu, gazteek sareetan euskaraz jarduteko.

Durangoko euskalgintzatik, GUKATIK, gogoetarako deia egin duzue.

Euskararen aldeko aktibismoari eta mugimenduari beste bultzada bat eman guran gabilta. Horretarako, gogoeta bat egin gura dugu ekainaren 8an, Pinondo Etxean. Durangoko euskaltzale guztiak parte hartzera gonbidatuta daude. Denon artean diagnostiko bat egin eta erantzunak bilatzea da asmoa, mugimendua sendotzeko.

Euskararen arloan, zeintzuk dira erronka nagusiak?

Ildo nagusi bi azpimarratuko nituzke. Alde batetik, administrazioa euskalduntzea. Beste alde batetik, erreferente euskaldunak sortzea. Alde horretatik, EITBK ardura handia du. Ereduak eta bes-

telako entretenimendua euskaraz sortu beharko luke eta gaur egun ez dabilta hori betetzen.

Eta Durangon?

Orokorrean, euskara ez dago erdigunean. Komunikabideen kasuan, hedabide askoren ustez, sartu behar den gauza bat da euskara,





MAIALEN
AIERDI GAZTELU-ITURRI

Durango, hezitzailea

"Itzartu taldean oso pozik ibili naiz"

Zer eman dizu Berbarok?

Berbarok asko eman dit eta oraindino ematen jarraitzen du. Lehen, umetan udalekuetara joaten nintzen, oso gustura ibiltzen nintzen. Orain, oster, hezitzaile moduan nabil, eta urte hau lehenengoa izan da Itzartu taldean. Urtebetean ekin-tza askotan parte hartu dut eta umeekin hartu-emanean egon naiz. Horixe da niri gustatzen zaidana eta oso pozik ibili naiz. Urte askoan jarraitzeko asmoa dut.



IZASKUN
ELLAKURIAGA BUSTINZA

Durango, kazetaria

"Jende asko ezagutzeko aukera emon eustan Berbarok"

Zein oroitzapen dakarkizu Berbarok?

Oroitzapen onak ekarten deustaz. Orain hogetaka urteetako kontuak. Batez be, ERAZ aldizkaritik euki dot nik hartuemona Berbarogaz. Lantaldeak be gertu gengoan eta gauza asko konpartidu izan doguz: bazkariak, batzar orduak, eta, batez be, barre asko (hasarrerren bat be seguru). Horreek Santa Ana plazako tabernan konpontzen genduzan, tarteka kafetxoa hartzeko astia hartuta. Jende asko ezagutzeko aukera be emon eustan Berbarok.



ANDER
SAGARDOY MUJIKA

Durango, Berbaroko kidea

"Jarrai dezagun ume, gazte eta helduen bizitzak euskaraz janzten"

Zer dakarkizu burura Berbarok?

Umetan galdetu izan balidate, merendolak egiteko familia giroko txoko txikia; gaztetan, joatea gustatu ez arren, hurbilak egiten zitzaizkidan udalekuen antolatzailea; eta orain dela urte batzuetatik hona, Durangok euskalgintzan eta herrigintzan duen elkarte garrantzitsuenetarikoa bat da niretzat Berbaro. Jarrai dezagun, beraz, beste 30 urtean gutxienez, ume, gazte eta helduen bizitzak euskaraz eta euskararen alde janzten. Zorionak eta eskerririk asko, BERBARO!



IHINTZA BERASALUZE
AZPITARTE

Durango, ikaslea

"Gauza berriak egiten ditugu: jolasak, gaubelak..."

Zer moduz Itzartu taldean?

Urtebete daramat Itzartu gazte taldean, eta oso gustura nabil. Gauza berriak egiten ditugu: jolasak, gaubelak... Oso esperientzia polita da eta, gainera, euskara bultzatzen da. **Udalekuetan ere ibili izan zara.** Nire lehenengo udalekuak Mendigorrian izan ziren Berbarogaz, LH 4. mailan. Beldur apur bategaz joan nintzen, baina oso ondo pasatu genuen. Lagun berriak ezagutu nituen.



NEREA UNZALU
ORMAETXEA

Durango, hezitzailea

"Ume askorentzat eskolaz kanpoko euskarazko eredu bakarra da"

Zertan diharduzu Berbaron?

Urteetan hainbat proiektutan hezitzaile izan naiz. Hasieratik ohartu nintzen ume askorentzat eskolatik kanpora dauden euskara eredu alternatibo bakarrak Berbarok antolatutako ekintzak zirela, eta aukera hori hezitzaileon eskutik emateak izugarri aberastu nau. Ludoteka, udalekuak, proiektuak... Familietxoak sortu dugu denetan, eta Berbarok urteak egiten jarraitzen duen bitartean, herritar guztiak ondoetorriak dira bertara.



MAITE AGIRRE
LAZKANO

Durango, Berbaroren sortzailea


"Lagun taldea Berbaron sortu genuen"

Zelan gogoratzen dituzu Berbaroren hasierako urteak?

Lagun taldea Berbaron sortu genuen. Elkartearen zuzendaritzan ere egon nintzen. Batzarretara ohi-tuta nengoan, baina gazteek gauzak egiteko beste modu bat zutela konturatu nintzen. Hala ere, oso ondo ibili ginen. Plateruenaren sorrera tokatu zitzaidan eta oso polita izan zen. Bestalde, dendari moduan, Berbaroren aholkularitza asko eskertu nuen, txartelak eta horrelakoak euskaraz jartzeko.

Udal hauteskundeak 2019 vs 2015 - Durangaldea

Boto kopurua



Grafikoan, 2019ko datuak kolore indartsuan, eta 2015ekoak apalagoan. Durangaldean alderdi guztiek egin dute gora, PPK izan ezik.

Markel Onaindia Txabarri
Kazetaria



Erori dira dorreak

Erori dira 40 urteko agintaldiaren dorreak. Azken hamarkadetan ezkererako eboluzioan dagoen aldaketa soziologiko batek egosi du hori Durangon. Eta, azken urteetako jardun politikoak eraman du egositako horrek gainezka egitera. Udal gobernuagaz sumindutako herritarrek hainbat plataforma sortu dituzte, oinarrietan bizi eredu hobe bat aldarrikatu dutenak, eta partaidetza zutabe lez eduki dutenak. Hain zuzen, gaur egungo bizi erudian lekuri ez duen proiektu bat izan da aldaketaren gakoetako bat: estazioko etxe dorreena. Gasteiztik diseinatutako dorre horiek, altxatu aurretik erortzear daude. Historiaren linboan elkartu daitezke, iaz eraitziko tren geltoki zahar eta mitikoagaz.

EAJ saiatu da egokitzen eta barne aldaketa bat erakusten. Baina, beranduegi akaso. Batzar Nagusietarako baino 700 boto gutxiago batu ditu udalerako, eta horietako asko maileguan joan dira ezkererara. EH Bilduk eta Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemosek aldaketarako eskari bat dutela erakusten dute boto horiek. Orain, auzoetan egin duten lanean dute gobernurako balio indartsuena. Erronka nagusia, bestalde, estazioko eremua izango da, Jaurilaritza ildo berekoa ez dela kontuan hartuta.

Lau urteko etapa berri bat dugu aurretik. Argi geratu da, Durangon zein eskualdean, etorkizuneko proiektuak jendeari entzuten eraiki beharko direla, eskurik esku auzolanean marrazten. Izan ere, politika margolan bat bezalakoa da: ez da egun bakar batean amaitzen, eta beti dago zer findu, zer hobetu, zer marraztu.

Amankomunazgoko ardura berreskuratu dezake EAJk, bototan eta zinegotzi kopuruan gora eginda

Lau urtean EH Bildu eta Herriaren Eskubidea agintean egon ondoren, jeltzaleek dute aukerarik gehien gobernatzeko; Abadiñoko Independenteeek edukiko dute giltza.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Lau urtean EH Bildu eta Herriaren Eskubidea agintean egon eta gero, EAJk berreskuratu dezake Aman-

komunazgoko ardura. Kargudun baten aldeagaz zeuden gobernu eta oposizioa, eta aurrerantzean ere horrela geratu daitezke, baina

jeltzaleen mesedetan. EAJk 13 jarleku lortuko ditu, EH Bilduk 12, Abadiñoko Independenteeek 1 eta Herriaren Eskubideak 1. Beraz, Aba-

diñoko Independenteeek edukiko dute giltza.

Amankomunazgoaz harago, eskualdean EAJ izan da garaile. 2015ean baino 2.300 boto gehiago lortu ditu, eta EH Bilduri 2.200 boto aldea ateratu dio. Jeltzaleek diote "garaipen eztabaida ezina" eskuratu dutela. "Etorkizuneko proiektua aurkeztu dugu, gure udalerrian, lurraldean eta Europan Euskadiren ahotsa izaten jarraitzeko", diote.

EAJk bezala, EH Bilduk ere gora egin du. "Orokorrean, balorazioa ona da. Erabakiguneak diren Abadiñon eta Durangon indar handia dugula erakutsi dugu, adibidez", esan du Eneritz Azpitartek. Hala ere, aitortu du beste alkatetza batzuk galtzeko arriskuan daudela, tartean Zaldibarkoa bera.

Durangoko emaitzatik aparte, Herriaren Eskubideak zinegotzi bat lortu du Berrizen, eta Elorrioren zeukanari eutsi dio. "Durangaldean ere egonkortzeko eta hazteko prozesuan gaude", esan du Julian Riosek. Zornotzan jaitsi izanaren arrazoia "kanpoko eragina" dela esan du.

PSE-EEko Francisco Fernandez batzarkideak dio "fidelizazioa" lortu dutela: "Presentzia berreskuratzen ari gara, eta sentsazioa dugu betidanik egon garen tokian gaudela".



Eskualdeko 27 kargudun batzen ditu Amankomunazgoak.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko maiatzaren 31a
17. urtea - 765. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Domeka gauean, Garrastatu eta Rios emaitzak batera ospatzen.

Durangoko emaitzak

	Botoak	Ehun.	Eser.
EAJ	5.426	%35,27	8
EH BILDU	4.970	%32,31	7
ELKARREKIN PODEMOS (HE)	2.515	%16,35	4
PSOE	1.540	%10,01	2
PP	697	%4,53	0
VOX	111	%0,72	0

PPk eta VOXek elkartuta 808 boto dituzte, baina ez dute lortu ordezkariak.

Durangoan, EH Bilduk "ezkerreko gobernu aurrerakoia" osatzeko kontaktuak hasi ditu, aldaketari bidea emateko

Garrastatu alkategai duen koalizioak Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos alderdiagaz hasi ditu hartu-emanak, asteon, eta bien arteko gobernu bat aurreikusi daiteke

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Domekan ezustekoa gertatu zen Durangoan, gobernu aldaketa historiko bat posible egin dezakeen ezustekoa. 40 urteko agintaldi jeltzalearen ondoren, EH Bilduk eta Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemosek gehiengo osoagaz udal gobernura heltzeko aukera daukate. Ima Garrastatu alkategai duen koalizioak esan du hasi dituela kontaktuak, lehenengo Julian Riosen

alderdiagaz, eta datorren astean PSE-EEgaz eta EAJgaz jarraituko du.

Sintonia ona

Azken legealdian sintonia ona izan dute oposizioko alderdi biek, eta domeka gauean ere batera ospatu zituzten emaitzak. Biek aldaketaren aldeko mezua zabaldu dituzte, eta bien arteko gobernu bat aurreikusi daiteke. "Gure intentzioa argia da: ezkerreko gobernu aurrerakoi bat

eraiki gura dugu. Berdintasuna eta justizia soziala izango ditu helburu, xede horretan ahalik eta gehien-gorik zabalenak lortuz", azaldu du Garrastatu alkategaiak.

EAJ ere ahaleginduko da

Bere aldetik, eta dezente zailagoa dirudien arren, EAJk ere adierazi du gobernu osatzen ahaleginduko dela. "Geu gara alderdirik bozkatuena. Besteekin berba egitea eta

gobernu orekatu bat eratzen saiatzea tokatzen zaigu, durangarrek horixe eskatu digutelako", esplikatu du Mireia Elkororibe jeltzaleak.

Partaidetzak gora

Hauteskundeetan egon den lehiaren seinale izan da partaidetza. 2015agaz alderatuta, 5 puntu igo da, eta alderdi nagusiek botoak irabazteagaz batera, PPri nabarmen igo zaio lehen zeukan zinegotzia mantentzeko langa. Hauteskunde legeak ezartzen du botoen %5 jaso behar direla gutxienez zinegotzi banaketan kontatzen hasteko, eta

PP botoen %4,53an geratu da. Gainera, VOXen agerpenak ere ez dio lagundu. Horrek eragin du beste jarleku bat ipintzea dantzan, eta Herriaren Eskubideak irabazi du. Lehia horretan, EH Bildu 61 botori geratu da zortzigarrena lortzetik.

Batzar Nagusietako aldea

Bada datu interesgarri bat ere, domekako emaitza ulertzeko gakoe-tako bat dena: EAJk Batzar Nagusietarako baino 700 boto gutxiago batu ditu udalerako. Beraz, 700 horiek gurago izan dute beste alderdi batengan konfiantza jarri udala gobernatzeko. Kontrara, EH Bilduk Batzar Nagusietarako baino 500 boto gehiago lortu ditu udalerako, eta Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemosek 700 gehiago. Aldaketarako eskaria jaso dute.



MIREIA ELKORORIBE

EAJ

Pozik gaude durangarren konfiantza mantentzen dugulako. Alderdirik bozkatuena izan gara, 2015ean baino boto gehiagaz. Hala ere, irakurketa lasai bat egin behar dugu, durangarren mezua ondo ulertzeko.



IMA GARRASTATXU

EH Bildu

Gure balorazioa oso positiboa da. Pozik gaude emaitzekin, eta aurretiaz kanpian egin dugun lanagaz ere poz-pozik gaude. Durangok berba egin du, eta adierazi du aldaketa gura duela.



JULIAN RIOS

EP-HE

Pozarren gaude. Gehien igo garen alderdia gara. Uste dugu herritarren jabekuntzaren birtartez politika egiteko modua saritu dela. Udal honetan egon den praktikaren kontrakoa da. Jendeak erabaki egin gura du.



JESICA RUIZ

PSE-EE

Eskerrak eman gura dizkiet durangar guztiei partaidetza handia izan delako, eta, batez ere, botoa eman diguten 1.540 herritarrei. Orain, denon artean, denok gura dugun Durangoren alde behar egingo dugu.



AIALA EGILUZ

PP

Nigan konfiantza jarri duten durangar guztiei eskerrak eman gura dizkiet, baita jaso dudatan tratuatik ere. Gainerako alderdiak zoriondu gura ditut, eta onena opa diet datorren legealdirako.

lea artibai
i k a s t e t x e a

Xemein Etorbidea 19
Markina-Xemein (48270)
946169002 / info@leartik.eus
www.leartik.eus

LANBIDE HEZIKETA

aurrematrikula ekainaren 3tik 14ra
matrikula uztailaren 11tik 17ra

erdi mailakoak

- ✓ BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- ✓ MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOAK

goi mailakoak

- ✓ ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- ✓ MEKATRONIKA INDUSTRIALA
- ✓ WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- ✓ FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- ✓ ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
- ✓ AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
- ✓ EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

Abadiñoako gobernu eraketa airean da EH Bilduren eta EAJren igoeragaz

EH Bilduk emaitza "historikoa" lortu du, 1.602 boto jasota domekako hauteskundeetan


ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeek panorama aldatu dute


Abadiñon. EH Bildu izan da indarririk bozkatuena, 1.602 botogaz. Mikel Urrutiaren hautagaitzak

200 bat boto irabazi ditu orain lau urteko datuekin konparatuta, eta bost zinegotzi edukiko dituzte udalean. Bestalde, Mikel Garaizabalek gidaturiko zerrenda jeltzaleak ia 550 botoko igoera eduki du, 653tik 1.205era. Kontrara, beherakada nabarmena izan du Abadiñoako Independenteen zerrendak. Javier Crespok hartu du Jose Luis Navaroren lekukoa, baina ez haren boto zakukada.

Orain arte, AI eta EAJ elkarrengaz egon dira udal gobernuan, baina orain jeltzaleek independenteek baino boto gehiago lortu dituzte eta horrek airean uzten du aurreko legealdian sinaturikoa. "Abadiñoentzat onena dena egingo dugu", adierazi du Garaizabalek. Urrutiak hiru alderdien "inplikazioagaz eta elkarlanagaz" osatu gura du udal gobernu. "Horixe da herritarrek gura dutena", adierazi du.



Independenteeak ia 500 boto galdu dituzte



Zaldibarko zinegotzien banaketa.

Gobernu aldaketa, EAJ eta PSEren eskuetan Zaldibarren

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

EH Bilduren hautagaitzak ez du behar besteko babesas jaso gehiengoari eusteko, eta, ondorioz, koalizio subiranistaren legegintzaldi bien ondoren, Zaldibarko udalean gobernu aldaketa egongo dela aurreikusten da. Hala ere, alkatetzari eusten ahalginduko direla aurreratu du Eneritz Azpitarte jarduneko alkate eta EH Bilduko alkategaiak. "Geu gara lehenengo indarra, eta geuri dagokigu alkatetza. Horretarako, datorren astean hasiko gara beste alderdietako kideekin berbetan", adierazi dute. EH Bilduren hautagaitzak 647 boto lortu zituen maiatzaren 26an,

2015eko udal hauteskundeetan baino 27 gutxiago.

Jeltzaleak pozik

EAJko Jose Luis Maiztegi "pozarren" agertu da bere hautagaitzak lortutako emaitzekin. 518 boto lortu dituzte, aurrekoetan baino 183 gehiago. PSEk lehenengo antzeko emaitzak lortu ditu, 251 boto (aurrekoetan 209), eta zinegotzi bi edukiko ditu. Maiztegiaren esanetan, EAJk lortu dituen lau zinegotziekin batera gehiengo osatuko lukete udalean, baina erabakia hartu barik dago. PPren gainbehera Zaldibarren ere ikusi da, eta 53 boto-emaitzen babesas baino ez du jaso.



EH Bilduren hautagaitza izan da bozkatuena.



EAJren hautagaitzak badu gobernatzeko aukera.

MIKEL URRUTIA
EH Bildu

Emaitzak oso onak dira, historikoak. Lehenengo aldian EH Bildu garailea izan dena Abadiñon. Herritarrek bat egin dute gure proposamenagaz. Herritarrek parte hartzea ipini dugu kanpainaren ardatzean, eta udalean hori egiten lehenengoak izan behar dugu horretarako.

MIKEL GARAIZABAL
EAJ

Gorakada nabarmena eduki dugu eta pozarren gaude horregatik. Oraindino ez dugu erabaki zer egin udalaren eraketan. Eskerrak eman gura dizkiegu hauteskundeetan parte hartu duten herritarrei. Guk beharrean jarraituko dugu, orain artean bezala.

JAVIER CRESPO
AI

Horietzek dira emaitzak, eta zertan huts egin dugun hausnartzea dagokigu orain. Udalaren eraketarako ez dugu aterik ixten, eta EH Bilduren zein EAJren proposamenak entzungo ditugu. Izan ere, guk dugu giltza, bai udalean, bai Durangaldeko Amankomunazgoan.

Ezetz asmatu zenbat enpresak nahi duten "Community Manager" ona eta euskalduna! **Hemen duzu aukera!**

Goi Mailako Ziklo Ofiziala
MARKETINA eta PUBLIZITATEA


Izena eman!

www.harrobia.eus | Harrobia Plaza 4, 48003 Bilbo | Tlf: 94 472 43 66 | 688 650 113



harrobia
ekinez egina





2019 eta 2015eko udal hauteskundearen alderaketa.



Xabier Azkarate erdian, alderdiko kideak inguruan dituela.

12 urteren ondoren, EAJk Atxondoko Udala berreskuratu du eta Xabier Azkarate jeltzalea izango da alkatea

434 botogaz, EAJ izan da zerrendarik bozkatuena, eta 5 zinegotzi eskuratu ditu Atxondon; EH Bilduk jeltzaleek baino 57 boto gutxiago lortu ditu eta 4 zinegotzi izango ditu

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Maiatzaren 26ko hauteskundeek aldaketa ekarri dute Atxondora. Azken hiru legegaldietan, ezker subiranista egon da agintean, baina, oraingoan, lehenengo indarra izate-tik bigarrena izatera pasatu da, eta 12 urteren ondoren, EAJk berresku-

ratu du alkatetza. "Oso pozik gaude lortutako emaitzagaz, balorazioa oso positiboa da eta, lehenengo eta behin, eskerrak eman gura dizkiegu herritarrei", adierazi du Xabier Azkarate jeltzaleak.

Joan zen domekako hauteskundeetan, aurreko udal hautes-

Kaleratu duten programa "bete" egingo dutela jakitera eman du Xabier Azkarate jeltzaleak

kundeekin alderatuta gora egin zuten EAJk, eta EH Bilduk baino 57

boto gehiago lortu zituen. "Lehia estuagoa izango zela pentsatzen genuen", jarraitu du Azkaratek.

Bestalde, kaleratu duten programa "bete" egingo dutela jakitera eman du EAJko zerrendaburuak.

Autokritika garaia

Atxondoko EH Bilduko kideek emaitzak aztertu eta autokritika

egiteko ordua dela esan dute. "Hanka-sartzeetatik ikasi eta lan egingo dugu herritarrengan ilusioa berpizteko", azaldu dute ohar bidez EH Bilduko kideek.

Horrez gainera, oposiziotik udal "garden, parte-hartzaile, arrerakoi eta euskalduna" lortzeko behar egiten jarraituko dutela esan dute, oposizio "zorrotza" eginez. "Oposiziotik gatxa izan arren, legegaldian ahalegina egingo dugu azken urteotan kostata aurreztutako diru guztia EAJk xahutu ez dezan eta AHTak gure herriko ateak parez-pare zabalik izan ez ditzan", amaitu dute.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

lanerako gertu!

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2019-2020

Urtzi Mugurutz

Automatizazio eta robotika industrialia – 1. maila. Antzuola

Zergatik aukeratu zenuen Automatizazio eta Industria Robotika heziketa zikloa? Eta zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Goi mailako fabrikazio mekanikoko zikloa aterata nuen eta hura osatzeko aukera egokia iruditu zitzaidan; gainera, gaur egun, lan eskari handia dago, eta etorkizunean asko erabiliko delakoan nago. Lagun batzuek Mondragon Goi Eskola Politeknikoa gomendatu zidaten, eta bertan ikastea erabaki nuen.

Heziketa ziklo honetan, ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer-nolako erronkak egin dituzue?

Irakasgaietan ikasitako eduki eta konpetentziak hobeto lantzeko, irakasleek erronka bat proposatzen digute, non irakasgai guztiak sartzen diren. Horrela, irakasgaien arteko elkar lotura ikusten da, eta hau oso aberasgarria da.

Adibidez, orain bukatu berri dugun errokan, birringailu industrial bat simulatzen zuen maketa egin dugu. Horretarako, diseinu elektrikoa, plano elektrikoak, kalkuluak, automataren programaketa, armairu elektrikoaren mundaketa, martxan jarri... taldeka landu ditugu. Eta oso garrantzitsua izan da planifikazio on bat egitea. Lan hori guztia hamalau egunetan egiteko beharrezkoa da ondo antolatzea; bestela, ez da posible. Irakasleen laguntza oso baliagarria izan da; azkenean, epe horretan ez da klaserik ematen eta gure kabuz ikasten dugu. Irakasleak laguntzaile bakarrik dira.

Nola baloratuko zenuke esperientzia hau?

Oso aberasgarria izan da; taldean lan egiten ikasteaz gainera, arazoei konponbideak aurkitzen ere ikasten da.

Izen-ematea

Ekainaren 3tik 14ra


Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz

gmhz.mgep@mondragon.edu

943 71 21 91



EH Bilduk eta EAJk seina zinegotzi izanda, Herriaren Eskubidearen esku dago balantzak zein aldetara egingo duen.

Elorrion, EH Bildurena izan da zerrendarik bozkatuena, eta Herriaren Eskubidea izango da giltza

Koalizio subiranistak eta EAJk seina zinegotzi lortu dituzte eta Herriaren Eskubideak, bakarra

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Beste urte batez, EH Bilduk aurkeztutako zerrenda izan da bozkatuena Elorrion. Idoia Buruaga zerrendaburu duen alderdiak 1.905 boto jaso zituen joan zen domekako udal hauteskundeetan, eta, beste behin ere, lehen indarra bilakatu da. Sare sozialen bitartez, Buruagak eskerrak eman zizkien euren gan konfiantza jarri zuten 1.905 herritarrei. "Hurrengo lau urteetan nire taldekide zoragarriagaz Elorrio hobetzen jarraitzea izango da eskertzeko modurik onena. Herri gintzan lanean jarraituko dugu eta zin egiten dizuet gure onena emango dugula, 1.905 pertsona horiengatik eta beste guztiengatik", aitortu du Buruagak.

Mikel Arruabarrena EAJko ki-deak azaldu duenez, "aurreko hau-

teskundeetan bezala gelditu gara. EH Bilduk eta guk seina zinegotzi lortu ditugu eta Herriaren Eskubideak, bakarra. Gainera, bipartidismoa handitu egin da, alderdi nagusi bion boto kopuruak igo egin

Ekainaren 15ean jakingo da ea alderdien artean akordiorik lortu duten udala gobernatzeko

dira eta. Hori positiboa da. Hala ere, kontziente gara seguruenik ez dugula gobernu edukiko". Bestalde, elkarlana sustatzeko lan egingo dutela esan du jeltzaleak. "Guk ez dugu fronteetan sinisten. Denok gara Elorriokoak, eta, beraz, el-

karlanean aritzea da gure asmoa", gaineratu du Arruabarrenak.

Herriaren Eskubideak giltza

Orain lau urte gertatu zen bezala, Herriaren Eskubideak zinegotzi bat lortu du Elorrion, eta Agustin Fernandez alderdiko zerrendaburua "oso pozik" agertu da lortutako emaitzagaz. Azken legegintzaldian bezala, alderdi moreak edukiko du giltza, eta herritarrek ekainaren 15ean jakingo dute ea alderdien artean akordiorik lortu duten Elorrioko Udala gobernatzeko. "Oraindik ez dugu barbarik egin. Hala ere, pozik gaude legegintzaldi honetan egin dugun lanagaz, elkarlanean ibili gara eta", azaldu du Herriaren Eskubidearen bozeramaileak.



Elorrioko EH Bildu da gobernatzeko aukera gehien duen alderdia.



Joseba Muxika da Elorrioko EAJko alkategaia.

Otxandion EH Bildu alkatetzan, eta EAJ geroago eta gertuago

2011n, 303 botoren aldea egon zen alderdi bien artean; oraingo hauteskundeetan, 92koa izan da tartea

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

EH Bilduk alkatetzari eutsi dio Otxandion, baina EAJ gerturatu egin zaio. Azken hauteskunde bietako joera da. 2011n, orduko Bildu alderdiaren eta EAJren artean 303 botoren aldea izan zen. Gaur, 92 boto daude EH Bilduren eta jeltzaleen artean. Domekan, 396 batu zituen koalizioak, eta 304 EAJk.


Edozelan ere, ezker subiranista bosgarrenez segidan egongo dela gobernuan azpimarratu du Egoitz Garmendia EH Bildutik

alkate izango denak. "Horrek erakusten du sinesmena dagoela gure proiektuan", dio. "Ilusioz" sartu direla eta legegintzaldi honetan proiektu "potoloak hasi eta amaitzeko" aukera egongo dela esan du.

EAJko zerrendaburu Endika Garatek azken urteetako igoera nabarmendu du: "Zortzi urtean zinegotzi bi irabazi ditugu. Oso pozik gaude emaitzekin". Aurrera begira, "oposizio eraikitzaile bat egiten jarraituko dugu, orain arte egin dugun moduan", azaldu du.



Egoitz Garmendiak (argazkikoa) Urtzi Armendariz ordezkatu du alkate moduan.



EH Bilduk gora egin du botoetan, eta EAJrekiko zuen orain arteko tartea handitu du Izurtzan.

EH Bilduk indartuta eutsiko dio alkatetzari Izurtzan

EAJk zinegotzi bat galdu du eta ordezkari bigaz geratu da

IZURTZA • AITZIBER BASAURI


EH Bilduk alkatetzan jarraituko du Izurtzan. Indartuta, gainera. Izan ere, bosgarren ordezkaria lortu du udal hauteskundeetan, eta EAJ ordezkari bigaz geratu da. Lorea Muñozek azaldu duenez, "poz-pozik gaude lortutako emaitzekin, herriak gudan jarri duelako konfiantza, egin dugun lana ikusita". Muñoz eskertuta agertu da horren aurrean, eta esan du aurrerantzean

ere "ilusioz" jarraituko dutela lanean.

EAJko Aroa Gonzalezen berbetan, "ez genuen horrelako emaitzarik itxaroten, etenbako lan bat egon delako hor". Zinegotzia galtzea "ezustea" izan da. "Berdinduago egongo ginela uste genuen", esan du. Dena dela, "ahal den neurrian, oposizio eraikitzailea" egingo dutela gaineratu du Gonzalezek, eta beharrez jarraituko dutela.



Igor Agirre bigarren izango da Mallabiko alkatea



Azken hauteskunde bietako boto kopuruak alderatzen dituen taula.

EAJk etekina atera dio gobernatzeari, eta estu irabaztetik garbi gailentzera pasatu da Mallabian

Jeltzaleen ustez, "egonkortasunaren eta lasaitasunaren aldeko botoa eman dute herritarrek

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

2015ean, EH Bilduren legegintzaldi biren ondoren, EAJk Mallabiko aginte makila berreskuratu zuen emozio handiko udal hauteskun-

deetan. Izan ere, hiru botoren aldea baino ez zen izan EAJren eta EH Bilduren artean. Estu eta larri izan ziren kontuak. Beraz, eskualdeko aurtengo interesguneetariko bat

zen Mallabian gerta zitekeena. Beste zenbaketa estu bat itxaroten zutenak oker zebiltzan. EAJk garaien argia lortu du, EH Bilduk baino 171 boto gehiago eskuratuta.

Beraz, Igor Agirrek errepikatuko du alkate karguan. Lortutako emaitzekin gustura agertu da eta herritarrek EAJren proiektua "babestu" dutela dio. Mallabitarrek "egonkortasunaren eta lasaitasunaren" aldeko botoa eman dutela uste du eta aurretik datozen erronkei aurre egiteko gogotsu dagoela esan du.

EH Bilduko alkategai Aitor Loiolaren ustez ere, "oso garbi" geratu

da mallabitarrek EAJk gobernatzea erabaki dutela. "Onartu egin behar da eta onartzen dugu, eta EAJ zoriondu egiten dugu lortutako emaitzengatik", esan du. Horregaz batera, aurrera begirako asmoak azaldu ditu Loiolak: "Guk plangintza bat osatu dugu eta, oposiziotik, ahal den neurrian, horko proiektuak aurrera atera daitezten behar egingo dugu, elkarlanaren bitartez".



Otxotorenak lau urte daramatza Mañarian bizitzen, eta hamar hango haurreskolan lanean.


EH Bilduk alkatetzan jarraituko du Mañarian, aldea handituta

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

EH Bilduren eta EAJren artean 2015ean boto biren alde estua izan bazen ere, domekan 28 botoa handitu zen. EH Bildutik alkate izango den Ainara Otxotorenak herritarren babes sendoagoagaz egingo dio aurre legegintzaldiari. Urte batzuk daramatza herrian bizitzen eta lanean, baina bertan jaiotakoa ez denez —hernaniarra da—, bazuen zalantza herrita-

rrek zelán erantzungo zuten. Baina aurreko asteetan izandako "sentsazio onak" berretsi zituen domekan. "Pozarren gaude eta gogo handiagaz erronkari aurre egiteko", azaldu du.

EAJko Aitzol Gerenabarrena esanetan, "ez dira izan itxaroten genituen emaitzak". Proiektua lantzeko, denbora gutxi izan dutela dio. EH Bildu zoriondu du eta beharrerako "ilusioz" dagoela dio.





CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK

Aurrematrikula
ekainaren 3tik 14ra

Matrikula
uztailaren 11tik 17ra

ESKAINZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroiinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile/langabetuentzat ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | @fpzornotza









726 boto gora eginda, EAJk gehiengo osoa izango du Zornotzako udalbatzarrean

EH Bilduk ere gora egin du boto kopuruan, baina ez du islarik izango eserleku kopuruan



ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

EAJk gehiengo osoa eskuratu du udal hauteskundeetan. Ilegalizatu-tako alderdiak tarteko izan ziren udal hauteskundeak alde batera utzita, 1983tik ez zen horrelakorik gertatzen. Horrez gainera, inoizko boto kopururik handiena lortu dute jeltzaleek. Horrela, Andoni Agirrebeitiak babes zabalagaz aurre egingo dio alkate moduan bere bigarren legegintzaldiari, eta ez du

EAJk ez du PSE-EEren laguntzarik beharko proiektuak aurrera ateratzeko

aliantzarik edo PSE-EEren laguntzarik beharko proiektuak aurrera ateratzeko.

EH Bilduk ere gora egin du boto kopuruan: 2015ean baino 332 boto

gehiago lortu ditu. Baina gorakada horrek ez dio eserleku gehiagorik ekarriko udalbatzarrean, eta lehen zituen seiekin geratuko da. Beraz, ezingo du gauzatu helburu nagusi zuena: udal gobernuan aldaketa izatea.

Elkarrekin Podemos koalizioak ez du itxarondako emaitzarik lortu. Euren gaitetik dagoen testuinguru politikoak kalte egin diela uste du Alba Gutierrez zerrendaburuak. Koalizioa zinegotzi bakarragaz geratu da. Hiri Ekimenak bi izan zituen aurreko legegintzaldian.

Azkenik, PSE-EEk azken urteetako beheranzko joera etetea lortu ez ezik, boto kopuruan gora egin du aspaldiko partez. 2015ean baino 149 boto gehiago eskuratu ditu. Lehen zuen zinegotziari eutsi dio, baina oraingoan ez du aurreko legegintzaldian zuen balio berdina, EAJk ez duelako eserleku hori behar gehiengo lortzeko.

EAJk botoak irabazi ditu eta gehiengo indartu du lurretan

EH Bilduk ordezkariak mantendu du, boto gutxiago lortu arren

	Botoak	Ehun.	Eser.
EAJ	898	%47,11	6
EH BILDU	549	%28,80	4
PSOE	239	%12,54	1
ELKARREKIN PODEMOS (HE)	117	%6,14	0
PP	85	%4,46	0

Elkarrekin Podemosek 117 boto eskuratu ditu lurretan, baina ez du jarlekurik lortu.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

EAJk botoak irabazi ditu lurretan. Iñaki Totorikaguenak alkatetzan jarraituko du eta "gehiengo indartu" dute. "Egindako lan on, apal, zintzo eta isilaren adierazle" dira emaitzak, bere ustez. "Herrigintza lan etengabea da, eta lanean jarraituko dugu gure proiektuak denekin partekatuzeko", esan du Totorikaguenak.

EH Bilduren balorazioa "gazi-goza" da. Zinegotziak mantendu ditu, baina 100 bototik gora galdu. Elkarrekin Podemosen botoak eta mezua herritarrengana helarazteko gabeziak aipatu dituzte arrazoitzat. Baita EAJk euren proposamen asko "haienak balira legez saldu izana" ere. Hala ere, "indartuta" daude herrian beharrean jarraitzeko.

Orlan Isoirdek alkatetzan jarraituko du Berrizen

Sei zinegotzigaz, gehiengo osoa izango dute jeltzaleek

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2011tik hona, Orlan Isoird jeltzalea izan da Berrizko alkatea, eta karguan jarraituko du, hauteskundeetan gehiengo osoa lortuta. "Babes hau pizgarri bat da ildo beretik beharrean jarraitzeko, herritarrekin batera Berriz hobetzen jarraitzeko", adierazi du Isoirdek.

Bestalde, EH Bilduko kideek aitortu dute ez dituztela alde aurretik jarritako helburuak bete. Hala ere, beharrean jarraitzeko "gogoz" daudela adierazi dute.

Herriaren Eskubideko kideei dagokienez, "oso pozik" daudela azpimarratu dute, lehenengoz aurkeztu eta zinegotzi bat lortu dutelako.

ANDONI AGIRREBEITIA
EAJ


Emaitzak ezin hobekak izan dira. Inoiz ez dugu hainbeste boto lortu hauteskunde batzuetan. Honek lana erantzukizun handiagoz egitera eta alderdi guztiekin hartu-emanak gehiago sakontzera eraman behar gaitu. Azken lau urteetan egindako moduan, ahalik eta adostasun eta akordiorik zabalena lortzen ahaleginduko gara.

ANDER URIARTE
EH BILDU

Oso emaitza onak izan ditugu eta gorakada goazela baieztatu da. Gogotsu gaude eta ez izan zalantzarik, oposizioan ere, irmotasunez eta arduraz arituko garela lanean. Legegintzaldian, Udal Gobernuari kontrol zorrotza egingo diogu egunerokoan, interes ekonomiko eta alderdikoien aurretik herritarrak lehenetsi ditzan.

ALBA GUTIERREZ
ELKARREKIN PODEMOS

Lantalde bikaina osatu eta lan ona egin dugula pentsatzen dugu. Hau dela-eta, emaitza hobea itxaroten genuen. Hauteskundeak testuinguru konplexuan garatu dira eta Zornotzan ere bere ondorioak pairatu ditugu. Hala eta guztiz ere, herriagaz dugun konpromisoari tinko eusten diogu eta gogor lan egingo dugu emaitzak hobetzeko.



EAJk 6 zinegotzi izango ditu, EH Bilduk 3, Herriaren Eskubideak 1 eta PSE-EEk 1.

LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILAKO ZIKLOA
Landa inguruneke Gorputz eta Kirol Ekintzen Gidaritza

GOI MAILAKO ZIKLOA
Gorputz eta Kirol Jardueren Animazioa

Aurrematrikulazio epea: ekainaren 3tik 14ra

www.durangobhi.net
info@durangobhi.net
946817325

Garaiko Herriko Taldeak udaleko gobernua galdu du, 12 urteren ondoren

Datozen lau urteetan, EAJko Erramun Osa izango da Garaiko alkate, hauteskundeetan 110 boto lortu eta gero

GARAI • MARKEL ONAINDIA

2007an, Herriko Taldea udal gobernura heldu zen, Gontzal Sarri-goitiaren eskutik. 12 urtean alkate izan da, eta aurten politika utzi du.


Erramun Osa: "Herriko Taldeari lankidetzan jarduteko prestutasuna azaldu nahi diot"

denona den herri batean denontzat gobernatzen saiatuz", azaldu du. Lankidetzaren eskaini dio Ane Etxeita alkategai izan duen taldeari. "Herri-tarrei aurkeztu diegun programa ardatz hartuta, Herriko Taldeari eskua luzatzeko eta lankidetzan jarduteko prestutasuna azaldu gura diot, denon indarra behar-beharrezkoa baita, herri txikietan are gehiago", adierazi du Osak.

Alderdi zerranda berriak gobernuari eusteko asmoa zuen, baina Sarri-goitiagaz batera amaitu da Herriko Taldearen agintaldia. Datozen lau urteetan, EAJko Erramun Osa izango da alkate Garain.

Eskertuta agertu da Osa. "Ilusioz hartzen dut herritarrek eman didaten erantzukizun berria. Herritarren kezka eta proposamenak bideratzen ahaleginduko naiz,

Udal hauteskundeak 2019 vs 2015 - Garai



Hauteskundeak galdu arren, boto-emaileei eskerrak eman gura izan dizkie Herriko Taldeak. Hurrengo asteetan hausnarketa bat

egingo dutela iragarri dute. Hala ere, beharrez jarraituko dute. "Garaiko herritarren interesak defendatzen jarraituko dugu", esan dute.



Garaiko EAJ udaleko agintera bueltatuko da, domekan irabazi eta gero.



Aldundirako eta Europarako emaitzak ikusgai ANBOTOn webgunean

DURANGALDEA • M.O.

Ale honetan, udal hauteskundeetan jasotako emaitzen inguruko informazioa eman du ANBOTOk, baina Batzar Nagusietarako eta Europako legebiltzarerako emaitzak ere jaso ditu anboto.org webgunean. Hantxe topatu ahalko dira eskualdeko datuak, eta baita herririk herri ere. Noski, udaletako datu guztiak ere badaude ikusgai. Gainera, atal berezi horrek konparaketak egiteko aukera ere eskaintzen du.

Domeka arratsaldetik astelehen arratsaldera bitartean, 50.000 bisita eduki zituen webguneak, daturik onenak erregistratuta.

Kids&Us-ek hazten jarraitzen du Durangon, Tweens&Teens

the English Formula
Ingelesa urte 1etik aurrera

Matrikulak Zabalik
*** 2019-2020 ikasturtea ***

kidsandus.com

Kids&Us egiaztatutako metodologia da. Ama hizkuntzaz modu naturalean jabetzeko prozesuan oinarritzen da eta haurrak estimuluen unibertsoan murgiltzen ditu ingelesez, bai ikasgela barruan, bai ikasgelatik kanpora.

Kids&Us-en, **ikasleak urtebetetik aurrera hasten dira ingeles eskolak hartzen**. Umetxoek modu orokorrean dute lehenengo harremana hizkuntza berriarekin, murrizketarik barik, baina euren adinarekin bat datozen egoera eta testuinguruetan, haurrek txiki-txikitatik ikasteko duten gaitasunari erabateko etekina ateratzeko. Kids&Us ikastarok 18 urte izan arteko iraupena dute. Ordurako, ikasleek gaitasun linguistiko handia lortu dute.

Kids&Us-eko ikasteko **metodoa** eta **material** pedagogikoa ikasleek adinera egokitzen dira, eta baita zentroa ere. Hori dela eta, **bederatzi urtetik aurrera**, "Kids&Us zentrotik **euren aurrenerabegaroko beharrezanetara hobeto egokitzen den zentro batera pasatzen dira: Durangoko Tweens&Teens by Kids&Us zentrorra**.

Zentro berriko ikasgela eta altzariak ikasleek eboluzio-unera egokituta daude. Handiagoak dira eta ordutegia zabalagoa da, zerbitzu eta arreta ezin hobek bermatzeko.

'T&T' etapa berri honetan, ingelesez komunikatzeko gai izatetik hizkuntza

ondo jakitera pasatuko dira ikasleak, eta garrantzi handia emango zaio hizkuntzaren ahozko erabilerrari. Horretarako, baliabide gramatikalak praktikan jartzea eskatuko duten egoerak sortuko dira, nerabegarora egokitutako material erakargarria erabilita.

Kids&Us hazten dabil Durangon

Kids&Us-ek urtebetetik aurrerako 400 ikasle baino gehiagori kalitaterrik handieneko ingelesa eskaintzen dien zentro bat du Durangon. Datorren ikasturtean, Tweens&Teens by Kids&Us Durango inauguratuko da.

Tweens&Teens by Kids&Us
school of english

Inaugurazioa

Ostiralean, Ekainaren 7an / 17:00-19:00
Durangoko Plateruen Plaza, 5



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

etxeajantzi

DEKORAZIO GEHIGARRIA 2019

anboto
komunikabideak



EGONGELA

SUKALDEA

BAINUGELA

LOGELA

UMEEN LOGELA



 **famaliving**
Durango

Etxean gozatzeko sofak
Laster irekitzekoa Durangon
Frantzisko Ibarra Kalea, 8 Etxabea



Etxea jantzi

Hurrengo orrialdeotan, hainbat ideia eta proposamen egingo dizkizugu zure etxea apaintzeko. Sukaldea, egongela, jangela, bainugela zein logela aldatzea pentsatzen ari bazara, hementxe aurkituko dituzu aukerarik originalenak. Sinpletasunaren alde egingo dituzko hautuak dira guztiak, koloreari bere lekua emanez, batez ere, detaile txikietan. Bestalde, umeen gustuko logelak diseinatzeko aukerak eskaintzen dizkizugu. Jolaserako eta atsedean hartzeko guneak uztartzea ezinbestekoa da. Gainera, espazio txikiei ahalik eta etekin gehiena ateratzeko trikimailuak ere kontatuko dizkizugu. Hasi zaituz aldaketaren zerrenda osatzen. Abilezia apur batez posible egingo duzu.



16 Egongela

18 Sukaldeak

20 Bainugela

22 Logela

24 Umeen logela

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
Ceramicas
MACOBER
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

etarte
www.etarte.com

Euskal Herria kalea, z/g.
ZALDIBAR
T/F: 946 030 416
Mug.: 635 717 360
info@etarte.com

Ideiak sortu
Diseinatu
Eraiki
Apaindu
Bermatu

Barne-diseinatzailea:
Garazi Burgoa





TABIRA
COLOR

Baduzu ideia bat? Margotu ezazu!

Tabira Color-en

beharrezkoa den guztia dugu konpontzeko,
pintatzeko eta dekoratzeko.

AHOLKULARITZA
PROFESIONALA



TABIRA
COLOR

BERRIKUNTZAK
DITUGU

AZKEN
BELAUNALDIKO
PINTURETAN

PINTURA
EKOLOGIKOETAN

ORBANEN
KONTRAKO
PINTURETAN

ZATOZ GU BISITATZERA
ETA INFORMATZERA

Montorretas Ind. 9-F Pab. DURANGO
Tel.: 946 217 911

EGONGELA

Espazio lasaiak



Egongela atsegina eta praktikoa izateko, ez da zertan larregi hornitu. Sinpletasunean oinarrituz, elementu dekoratiboak sartu ditzakegu, kolore ukitua emateko. Kuxinak edo alfonbrak, esate baterako.



Adi sofa aukeratzen duzunean. Espazio honetako protagonista nagusia izango da



ATERPE ARROTZA
EGUR ERAIKUNTZAK · TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar
635 74 84 65 www.carpinteriaaterpe.com Ander Maiztegi
655 73 75 51

Karmelo Agirre
Barne Diseinua
kolegiatu zenbakia 183 C.O.D.B.

Proiektuak, **etxebizitzak**, komertzioak, **ofizinak**,
dekorazio integrala

karmelointeriorismo@gmail.com 610 50 10 86

José David Espinosa Gonzalez
LEUNKETAK eta BERNIZADURAK

OHOLTZA BERRIAK ETA ERABILAKOAK
PARKET EZARPENAK, OHOL ETA BALDOSA GAINEAN

Tel. 94 684 25 17
Mugikorra (Jose David) 687 537 732
jose.pinky@yahoo.com

Bº Artikas, 26 - 48288 Ispaster
Avd. San Andres 30, 1ºD- 48250 Zaldibar

lizentziak, proiektuak eta obraren zuzendaritza

jazz solutions barne diseinua kudeaketa bisuala lan guneak

Durangoko Plateruen Plaza, 12 bajo - Durango

94 621 59 64
www.jazzsolutions.es

R.E.A.:15/48/0014485
K.Z.: 0544-BI



“Bizitzeko espazioak sortuz”

Etxebizitzak, merkataritza lokalak zein bulegoak bezzeroaren neurrira.

ERREFORMA INTEGRALA • SUKALDEAK • BAINUGELAK • BARNE DISEINUA • HOME STAGING
• OSAGARRIAK • ALFONBRAK • ERREZELAK • NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK • OPARIAK



ALKI

BARNE DISEINUAK-en,
bizi izateko espazioak
sortzen ditugu.

SUKALDEAK

Giro neutroa



Urte askoan erabili ahal izateko diseinatzen da sukaldea. Horregatik, giro neutro batez ez zara sekula nekatuko. Kolore zuriagaz eta egurragaz ez duzu hutsik egingo.



Zure sukaldeko bigarren azala egoera eska-sean badago, aldaketa egiteko momentua da. Baldosak badituzu, apurtuta daudenak alda ditzakezu, edo dituzunak margotu

TAKET
Bertako fabrikazioa

www.cocinasfiona.com
fiona
COCINAS

Bainugelak • Sukaldeak
Etxeko altzariak
Horma-armairuak

San Miguel, 16 - Zornotza • Tel./Fax: 946 734 583 • cocitaketam@gmail.com
Olleria, 3 - Durango • Tel.: 946 201 516 • cocitaketdu@gmail.com



piolarrabe

Frai Juan Zumarraga, 19
48200 DURANGO
Tel.: 946 811 696
Faxa: 946 811 101

Elexalde, 28
48940 LEIOA
Tel.: 944 631 321
Faxa: 944 636 067

www.piolarrabe.com

D3
arquitectos



Elkartegia, Landako 4. Durango
T. 94 681 23 11
info@d3arquitectos.com

www.d3arquitectos.com

Durango kokatutako arkitektura bulegoa, irisgarritasun eta energia-eraginkortasun irizpideak erabiliz eraikinen erosotasuna hobetzeko berriztatze eta birgaikuntzan adituak.

Emaizta hobereana lortzeko helburuarekin obra garapen osoan aholkatuz auzo komunitate eta partikularrekin lan zuzena.

Esperientzia zabala:

- Eraikin osoen birgaitzea.
- Fatxada zein teilatu energia birgaitzeak.
- Igogailu instalakuntzak zein irisgarritasun hobekuntzak.
- Txosten teknikoak (ITEak, EZEak, peritazioak...).
- Diru-laguntzak zein lizentzia tramitazioak.

Konpromisorik gabe kontsultatu.



MARKIEGIK EGINDAKO LANAK



Gure markak

marset



FOSCARINI



Aurkitu itzazu gurekin diseinuzko argiztapen marka guztiak, bai diseinu dekoratibokoak, bai teknikokoak. Nazioarteko enpresarik ospetsuenen artean aukeratu ahal izango duzu: **Artemide, Delta Light, Flos, Foscarini, Fendi Casa, Baccarat, Louis Poulsen, Kartell, Italamp, Santa & Cole, Ingo Maurer, Anglepoise, Arturo Álvarez, DeMajo, Vibia, Tom Dixon, Panzeri** eta beste asko. Etixerako, bulegorako edo merkataritza-gunerako duzun argiztapen proiektuari buruz aholkatu zaitzakegu. *Gure laguntzarekin, erabaki ezazu zeintzuk lanpara eta argiztapen sistemak dituzun gogokoago.*



MARKIEGI

KOKAPEN BERRIA
Tabira 3, 48200 Durango

e-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com



BAINUGELA**Garbitasuna**

Zure bainugela etxeko lekurik berezietakoa izan daiteke. Praktikoa izan behar da, garbi mantendu ahal izateko. Eta txukun? Traste piloa batzen da komunean, batez ere kosmetikako produktuak. Biltegi-ratzeko sistemak ondo pentsatu behar dira



Espazio handiko bainugeletan bainera handia jarri daiteke. Kasu askotan, praktikotasunagatik dutxa aukeratzen da

MONTÓ pinturak

DURANGO MARGOAK
Askatasun Etorbidea, 9
DURANGO
Tel.: 946 40 88 20
www.durangomargoak.com

PINTURAK GOI MAILAKO DEKORAZIOA SISTEMA TINTOMETRIKOA PAPER MARGOTUAK

MONTÓ HTM
Azulejuetarako

MONTÓ SMART
Pintura Fotokatalitiko

MONTÓ CREA
Klarion efektua

etxedreams
COLCHONERIAS
Guk fabrikatzen ditugu


30 URTE BAINO GEHIAGO PERTSONEN ATSEDENERA ETA ONGIZATERA BEGIRA

ATSEDENAZ hitz egingo dugu?

Zubiaurre, 32, Ermua. Tel.: 943 17 70 41 / Mikeldi 4, Durango. Tel.: 946 20 21 28

leike aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com

Etxe honetan leihoak aldatu dituzte...

...nabaritzen da?



Kalitatezko leihoak jartzea ezinbestekoa da isolamendu ona izateko. KÖMMERLING-ekin tenperatura ideala izango duzu etxean, eta ahalik eta gehien aurreztuko duzu energia aldetik. Gozatu egingo duzu etxean egonda.



Zer eskaintzen dizute KÖMMERLING leiho sistemek?

- *isolamendu termikoa*
- *isolamendu akustikoa*
- *energia aurreztea*
- *material birziklagarriak*
- *estankotasuna urari*
- *mantenurik gabe*
- *erresistentzia haizeari*
- *kolore guztiak kolorten-ekin*



**Imajinatzen duzuna baino gertuago,
Durangaldeko instalatzaile ofiziala duzu**



KÖMMERLING®

Leiho sistemak

Zoladurak

Oholtzak

Leihoak

Ateak

Armairua

Eguzki-babesa

Gortinak

Alfonbrak



APAINKETAK
ROYUELA

BERNIZADURAK-LEUNKETAK

Jokatu zure espazioekin modu
xume eta pertsonalizatuan

Kalebarria, 40 Durango
Tel.: 946 810 582 · info@royuela.biz



KÖMMERLING®
Sistemas de ventanas

LOGELA

Atsedenerako gunea



Hainbat teoriaren arabera, logelan kolore urdina erabiltzeak lasaitasuna ekar dezake. Baina horrek ez du esan gura dena urdina izan behar denik. Ohea jantzi daiteke urdinez, edo baita hormaren bat ere



Logeletan beti dago jesarleku baterako lekua atsedenerako hartzeko



izei®

Erakusleihoko ume geletan **eskaintza bereziak!**

Intxaurrondo 10 Durango
Tel.: 94 681 59 94
decoradores@izeidecoracion.com





Lehen

D3 Arquitectos-ekin batera eginiko lana, Zaldibarren



Orain



Ametsa
Rehabilitaciones

MANTENTZE-LANAK KOMUNITATEETAN
SATE (Kanpoko isolamendu termikoaren sistema)
ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA
FATXADA AIREZTATUAK
TEILATUAK

646 35 31 99 info@ametsa.es DURANGO

UMEEN LOGELA

Irudimenaren txokoa

Umeen logeletan espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzea izaten da ardurarik handiena. Leku gutxi izanez gero, zalantza barik, ohatze edo literak jartzea aukera ona izaten da



Umeen logelak jolasleku ere izaten dira. Atsedena eta jolasa uztartzen diren espazioa izan behar da. Beraz, jolas horietarako biltegi egokiak ere aukeratu beharko dira



bed's
atsedena eta zu

Pozarren hartuko
zaitugu
gure dendetan:

bed's Durango
Alluitz kalea, 1
Tel.: 94 400 5980

KOLTZOIAK | OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

gandarias
Interiorismo




Arkotxa kalea, 6
48200 Durango
Tel.: 946 810 722
info@mueblesgandarias.com
www.mueblesgandarias.com

SUOMI - Astolabeitia kalea, 9 - Abadiño - Tel.: 94 621 52 84

LAGOI
MOTA
GUZTIETAKO
ZERAMIKAK
Aholkularitza
pertsonalizatua
Eraikuntzarako
materialak



BILTEGIA ETA ERAKUSKETA



III. Garagardo Azoka JAIALDIA MAÑARIA :: Ekainak 1

Bost ekoizleren garagardoa dastatzeko aukera

Garai Brewing Company, Bao-beer (Elgeta), Saltus Garagardoa (Murgia), Mitika Garagardoa (Iruñea) eta BorBor Brewery (Deba). Bost garagardo horiek das-

tatzeko aukera egongo da, zapatuan, Mañariko III. Garagardo Azokan. Txalaparta saioagaz hasiko da osatutako egitaraua, 13:30ean, eta, goizaldera bitar-

tean, hainbat ekitaldi izango dira: herri bazkaria, elektrotxaranga, show cooking-a eta musika bataila. Bestalde, garagardo sortak zotz egingo dituzte.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Maiatzaren 31n

DURANGO tribiala

Pub Quiz tribiala ingelesez, 21:30ean, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO erakusketa

'Geometriak eta fikzioak' (Daniel Txopitea), Arte eta Historia museoa.

IURRETA ipuinak

'A lo tonto' Ander Muñoz ipuin kontalariagaz, 19:00etan, bibliotekan.

IURRETA tailerra

Sukaldaritza, Etxegon. Izena eman behar da.

IURRETA film laburra

'Azken arnasa arte' film laburra, 19:00etan, Goiuria kulturgunean.
Bertso-giza-kate-ibiltaria, 19:30ean, Dantzari plazan. Sare lurretak antolatuta.

MALLABIA musika

Gontzal Mendibil, Jasokunde eta Mendibil abesbatzekin, 21:00etan, frontoian.

MALLABIA kirola

Euskararen aldeko futbito maratona, ekainaren 2ra arte, LHIn.

ZORNOTZA musika

'Girando con Carlos Cano', 20:15ean, Zornotza Aretoa. Alberto Mirasen zuzendaritzapean, Luis Pastorrek, Rosario La Tremenditak, Aitor Velazquezek, Carmen Parisek eta Mikel Urdangarinek Carlos Canoren abestiak interpretatuko dituzte.

Ekainaren 1ean

BERRIZ musika

Anje Duhalde, 20:00etan, Andikoako santutegian.

DURANGO jaia

Barbaroren 30. urteurrena, eguneko egitaraua eta bazkaria.

DURANGO ikastaroa

Neskentzako autodefentsa feminista, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era, Andragunean. Informazio gehiago: 94 465 70 92 / andragunea@durango.eus

IURRETA musika

Gontzal Mendibil, 18:00etan, San Andres auzoan. Gero, luntxa.

MALLABIA jaia

Mendi martxa umeentzat, 10:00etan, plazatik irtenda.
Bazkari autogestionatua, 14:30ean, frontoian.
Garagardo festa, 18:00etatik 20:00etara, probalekuan.
Erromeria: Kantu Kolore, 18:30ean, parkean.

Ekainaren 2an

BERRIZ jaia

Kirol jaia. Mendi ibilbidea, saskibaloia, irristaketa, pilota, gimnasia, pilates, eskalada, igeriketa...

MALLABIA azoka

Nekazaritza eta artisautza azoka, 10:00etan, frontoian.
Gazte Alai dantza taldea, 12:00etan.
Tio Teronen semeak: 'FreshCool', 12:30ean.
Puzgarriak, parkean: 12:30-14:30/16:30-19:30.
Briska txapelketa eta txokolatada, 17:00etan, frontoian.

Ekainaren 6an

DURANGO musika

Serge, 20:00etan, Intxaurre tabernan.

MALLABIA azoka

Igel txapelketa, 18:00etan, 60 urtetik gorakoentzat; 19:00etan, 60 urtetik beherakoentzat.
Debarrenako gazten dastatzea, 19:30ean, Kontzejuzarrea



Ekainak 7 · 22:00etan

GARI & MALDANBERA + ERABATERA
Kontzertua



Ekainak 19 · 19:00etan

IRAULTZAREN HAZIAK
Ikus-entzunezkoa

www.plateruena.eus



PLATERUENA
Kafe Antzokia

Landako Hiribidea, 4A DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatetxea@plateruena.net

Ekainaren 7an

ABADIÑO musika

Irene Zugaza, 22:30ean, Bedats herriko tabernan.

DURANGO irteera

Hondarribira irteera adinekoentzat, 09:30ean, Botafumeiro aurrean. Alde Zaharrean zehar bisita gidatua, 11:00etan. Bazkaria, 14:00etan. Informazio gehiago Adinekoen Udal Egoitzan: 94 465 74 51 / adintek@durango.eus

ELORRIO ipuina

Tuppersex-a eta ipuin erotikoak, 17:30etik 20:30era, Iturri kultur etxean. Inma Merinok eta Virginia Imazek zuzenduta. Izena emateko, maiatzaren 31ra arte: 94 657 08 09 / berdintasuna@elorrrio.eus.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

· **Vitoria 3 de marzo**
barikua 31: 22:00
domeka 2: 19:00

:: Durango ZUGAZA

· **Rocketman**
barikua 31: 19:30/22:00
zapatua 1: 16:45/19:30/22:30
domeka 2: 16:30/19:00/21:30
astelehena 3: 18:30/21:00
martitzena 4: 20:00
eguzatena 5: 20:00

· **Infiltrado en Miami**
barikua 31: 19:30/22:00
zapatua 1: 19:30/22:30
domeka 2: 19:00/21:30
astelehena 3: 18:30/21:00
martitzena 4: 20:00
eguzatena 5: 20:00

· **John Wick 3: Parabellum**
barikua 31: 19:30/22:00
zapatua 1: 19:30/22:30
domeka 2: 19:00/21:30
astelehena 3: 18:30/21:00
martitzena 4: 20:00
eguzatena 5: 20:00

:: Zornotza ARETOA

· **John Wick 3: Parabellum**
zapatua 1: 19:30/22:00
domeka 2: 20:00
astelehena 3: 20:15

· **Pokémon: Detective Pikachu**
zapatua 1: 17:00



Pintxorik onenaren bila

LEHIAKETA ZORNOTZA :: Ekainaren 2

Jai Alai pintxo lehiaketa izango dute, asteburuan, Zornotzan. Establezimenduek lau egunean banatuko dituzte pintxoak, maiatzaren 30etik ekainaren 2ra, eta, parte hartzeko, gutxienez 15 pintxo dastatu behar dira, guneko bakoitzeko hiru. Gero, txartel bat bete behar da, hiru pintxorik onenak zehaztuz eta zerbitzaririk profesionalena nor izan den adieraziz. Sari banaketa ekainaren 2an izango da, Zelaieta Zentroan. Hamar pintxorik onenen zerrenda ere osatuko dute.

Ekainaren 7an, doinu intimoak nagusituko dira Plateruenean, Gari&Maldanberak eta EraBaterak eskainiko duten kontzertuan

Emanaldi berezi batean, Gari&Maldanbera eta EraBatera taldeek 'Beste Denbora Batean' eta 'Antipodetan' lanak aurkeztuko dituzte, hurrenez hurren

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Ekainaren 7an, doinu intimistak nagusituko dira Plateruenean. Izan ere, Gari&Maldanberak eta EraBatera taldeek emanaldia eskainiko dute. Talde biek euren azken lanak aurkeztuko dituzte Durangoko kultur gunean. Gari&Maldanberaren kasuan, *Beste Denbora Batean* taularatuko dute, eta EraBaterak *Antipodetan* eramango du oholtzara.

EraBatera Gaizka Salazarrek martxan jarritako proiektu pertsonala da. Salazar Gatibu taldeko bateria-jotzailea izateagatik da ezaguna, besteak beste. Etxean mimoz landutako ideiak borobildu, eta estudiora eramatea erabaki zuen Salazarrek iaz, baina plan zehatzik barik. "Zelan gauden ikusi eta momentuaren arabera erabakitzen dugu. Agendak batzea oso gatxa egiten zaigu, baina eskaintzen dizkiguten gauza interesgarriak baiezkoa ematen ahalegintzen gara", esan du Salazarrek. Izan ere, Salazar lehen mailako musikari eta lagunez inguratu da *Antipodetan* argitaratzeko: Gatibun taldekide duen Mikel Caballero, Ken Zazpiko Beñat Serna eta Willis Drummondoko Jurgi Eki-batu ziren proiektura.

Doinu eta berba intimoak nagusitzen dira EraBatera taldean. "Sentimendu asko daude bertan ipinita, min batetik sortutako lana da, oso intimoa, gainera". Prozesuan sorturiko harremanagaz, oster, taldea indarturik irten dela iritzi dio musikariak. "Kantak nireak dira, baina proiektu pertsonal modura jaio zena talde bilakatu da; hainbat lekutatik heldu zaigu horixe dela transmititzen duguna. Abestiak



EraBatera.

nireak izan arren, talde moduan funtzionatzen dugu, eta talde izaera hori indartu da", adierazi du.

Kontzertu berezia

Salazarren ustez, hainbat faktorek berezi egiten dute ekainaren 7ko kontzertua. Besteak beste, Garigaz batera taularatzen diren Maldanberako kideak musikariaren lagunak dira; Gariri berari ere estimu handia diola aitortu du Salazarrek: "Nire kantak Plateruenean Garigaz jotzea oso berezia da. Uste dut elementu guztiak daudela kontzertu ona izateko eta gustura egoteko". Horrez gainera, sorpresaren bat ere

G. Salazar: "Nire kantak Plateruenean Garigaz jotzea oso berezia da niretzat"

ANBOTOK sarrera bi zotz egingo ditu kontzertu berezi honetarako

egongo dela aurreratu du Salazarrek. *Antipodetan* diskoan kaleraturiko abestiez gainera, beste kanta

berriago batzuk ere joko dituzte Platerueneko emanaldian. "Denbora honetan konposatzen jarraitu dut, eta, horrez gainera, grabatu ondoren diskotik kanpora geratu ziren beste abesti bi ere jotzen ditugu. Kontzertuaren arabera, bost edo sei abesti jotzen ditugu, diskoetakoetatik aparte", gaineratu du.

Gari Plateruenean

Bestetik, Hertzainak taldeko abeslari ohia *Beste Denbora Batean* diskoa aurkeztera etorriko da Plateruenean, Maldanbera taldeagaz batera. Bestelako doinuak bilatu ditu urteotan Garik, bere ahots berezia

segituan identifikatzen den arren. Harrera arrakastatsua izandako *Estutu* diskoan bezala, Maldanbera taldearen laguntza eduki du grabazioan; Borja Barruetak, Gorka Benitezek, Jon Agirrezbalagak, Oier Aldekoak eta Aitziber Omagok osatzen dute Maldanbera. Zuzenekoetan ere pop-rock egiturak, ahotsa eta atmosfera berezia uzartuko dituzte, giro berezia sortuta.

Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euroan erosi ahalko dira. Hain zuzen ere, ANBOTOK kontzertu honetarako sarrera bi zotz egingo ditu. Argibideak, sare sozialetan.

Asteburuan, Euskal Dantzen jaialdia ospatuko da Durangoko Andra Marian, Euskal Herri osoko dantza taldeekin

DANTZA • A.M.

Euskal Dantzen jaialdiaren XXXVI. edizioa egingo da asteburuan, Du-

Euskal Herriko lau taldek egingo dute dantzan asteburuan Tronperri taldeagaz batera

rangoko Euskal Jaien egitarauaren barruan. Urtero legez, Durangoko

Tronperri dantza taldeak antolatu du jaialdia, eta asteburu osoko ekitaldia izango da. Euskal Herriko zenbait herritako taldeak arituko dira.

Zapatuan, ekainak 1, hiru taldek egingo dute dantzan Durangoko oholtzara gainean: Zuberoako Muskildi dantza taldeak, Nafarroako Tafalla dantza taldeak eta Tronperri berak. 19:30ean hasiko da dantza emanaldia, eta talde bakoitzak osorik erakutsiko du bere errepertorioa.

Ekainaren 2an, talde bik egingo dute dantzan: Donostiako Goi-

Emanaldiak ekainaren 1ean (19:30) eta 2an (12:30) izango dira, Andra Mariko elizpean

zaldi dantza taldeak eta Gasteizko Adurtza dantza taldeak. 12:30ean hasiko da dantzaldia. Andra Mariko elizpean izango dira saio guztiak, doan.



lazgo jaialdiko argazki bat.

Sergeren 'Enarak Itzuliko Dira' diskoaren aurkezpenagaz abiatuko da EguenERO, Intxaurren

Bigarren urtez, Intxaurre kultur elkarteak kontzertu sorta antolatu du eguenak girotzeko; lehenengoa ekainaren 6an izango da

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Bost emanaldik osatuko dute bigarren EguenERO kontzertu sorta. Hilabetean Intxaurre kultur elkartearen eguenak girotzea da ekimenaren helburua. Horretarako, artista ezagunak eta gazteagoak direnak gonbidatzen dituzte Intxaurreko kideek. "Publikoarentzat ahalik eta egitaraurik erakargarriena egiten ahalegintzen gara. Horretarako, jada ezagunak diren artistak, edo berriak eta interesgarriak izan daitezkeenak ekartzen saiatzen gara", dio Kimetz Zenitagoia Intxaurreko kideak. Serge izango da Intxaurreko terrazan arituko den lehenengo artista. Eraso taldeko abeslariak bere lehenengo bakarkako lana den *Enarak Itzuliko Dira* aurkeztuko du; ekainaren 6an izango da hori, 20:00etan. Astebete geroago, ekainaren 13an, Serrulla gaztearen txanda izango da.

Ekainaren 20ko eta 27ko emanaldiak bakarlarik ezagun bik eskainiko dituzte: 20an Rafa Rueda mungiarra arituko da Intxaurreko

oholtzan. 27an, Petti beratarrak kantatuko du. Uztailaren 4an, Rojo Cancionerok itxiko du denboraldi berria.

Deneriko artistak

Antolatzaileak poz-pez ager-

tu dira iazko kontzertu sortak izandako harreragaz. "Pozarren gaude jendeak iaz emandako erantzunagaz. Guretzat ahalegin handi samarra da, baina lortu genuen jendea erakartzea eta haiek disfrutatzea, eta horixe zen

gure helburua", baloratu du Zenitagoiak. Deneriko doinuak jorrazten dituzten artistak aritu ziren Intxaurreko terrazan; tartean, Mikel Gorosabel, Jon Basaguren eta Mice artistak. Inun zornotzarrek ere kantatu zuen.



Rafa Ruedak ekainaren 20an eskainiko du kontzertua. GALDER IZAGIRRE.

Anje Duhaldek Berrizko Tren Geltokiko Musikariak zikloan joko du, Andikoan

Zuzeneko ekainaren 1ean izango da, zapatuan; 20:00etan hasiko da emanaldia



Anje Duhalde kontzertu batean.

MUSIKA • A.M.

Anje Duhaldek ia 50 urteko ibilbidea darama eta asteburu honetan kontzertua eskainiko du Berrizen, Andikoako santutegian. Ekainaren 1ean izango da emanaldia, 20:00etan. 2006tik hona, artista lapurtarrak ez du estudioko lanik atera (Sorminetan, Elkar argitaletxeagaz). Hala ere, Euskal Herriko plazetan jarraitzen du kantuan, kanta tradizionalaren eta rockaren arteko zubia eraikitzen.

Duhaldek hainbat kontzertu ditu lotuta uda honetarako, Berrizkoaz gainera. Sondikako (Bizkaia) BBK Legends jaialdi entzutetsuan joko du, The Beach Boys eta Suzanne Vegagaz batera, eta Baionan, Itziarren (Gipuzkoa) eta Gasteizen ere eskainiko ditu kontzertuak.

Gai librea

Josune Aranguren Zatika Filosofoa



Afektibitatearen kultura

Bi politikari zerrendabururen arteko besarkada, mailaz igokoden futbol taldeko entrenatzailearen bertsoa jarraitzaileentzat, heriotzaren aurrean isurtzen ditugun malkoak... Amaigabeak dira adibideak egunerokotasunean. Emozioak adierazten ditugu. Eta emozioak partekatzen ditugu. Partekatzen baditugu, seinale da horiek espresatzeko kode bera erabiltzen dugula: kode bera adierazitakoa eta ulertutakoa bat etor daitezten.

Urteetan antropologia eta gizarte zientziak esan digute emozioen gaia ez dela euren jakintza arlokoa, eta medikuntzaren aztergaitzat baztertu dute. Baina gure gizartea ere espresatzen da. Gure bitartez espresatu, gainera. Ilusioak, pozak edo doluak gure gorputzak zeharkatzen dituztenean ez dira edonola azaltzen, arbitrarioki, ez eta naturalki ere. Emozio bera desberdin agerrarazten du gizarte bakoitzak (gero norbakoak pertsonalizatuko duena). Afektibitatearen kulturak gizartea zeharkatzen du, amankomunean dugun jakintzetako bat da eta bizitzako gertakarien aurrean zelan jokatu erakusten digu. Horri eskerrak ulertzen diogu batak besteari eta jakin dezakegu sentipen bera ari garela bizi izaten une jakin batean.

Baina, afektibitatearen kultura gizartea eraikitzeko ore izateaz gain, gizartea kohesiorako faktore ere badela esango nuke. Emozioak konpartitzen ditugunean orearen kalitatea hobetzen dugu. Beste behin ere, kultura interpretaziorako ezinbesteko tresna da gertakizunak "erreal" moduan ulertu eta bizi ahal izan ditzagun.

* <http://josunearanguren.blogspot.com/>

merkataritza gida sarean anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena (urtean 50€)

ibaizabal
IKASTOLA

AURREMATRIKULA
Haur Hezkuntza goi mailako zikloa
Ekainaren 3tik 14ra

idazkaritza @ ibaizabalikastola.eus
Tel.: 946 215 877
www.ibaizabalikastola.eus

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

liburudenda

1# **KONTRAKO EZTARRITIK**
Uxue Alberdi (Susa)

2# **BASA**
Miren Amuriza (Elkar)

3# **TXISTU HOTSAK DURANGALDEAN**
Juan Antonio Aroma (Jaizale & Txistulari Elk.)

Bidezabalek Ohorezko Mailara igotzeko aukera aprobetxatu gura du

Iaz maila galdu eta gero, Durangoko klubeko emakumeen talde nagusiak atletismoaren gailurrera itzuli gura du

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

Bidezabalek atletismoaren gorenera itzuli gura du emakumeetan, iaz handik jaitsi eta gero. Horretarako, sailkapenean aurrean kokatuta dagoen arren, emaitza ona behar du domekan, Durangon jokatu den bigarren jardunaldian. Horren ondoren, azken saio bat baino ez da geratuko, ekainaren 15ean.

Lau taldetako 150 atleta batuko dira atletismo-pistan goiz osoan zehar: Alcorcongoak, Pontevedra-koak, Cartagenakoak eta Bidezabalgoak. Lehenengo posturako borrokan, Alcorcon izango da Durangoko klubaren aurkaririk sendoena.

Taldekako txapelketa denez, atleta denen ekarpena garrantzitsua da eta batutako puntu bakoitzak asko balio dezake. Bidezabalen kasuan, klubean dabilzan Bizkaitik kanpoko atletek dute euren espezialitateetan aurreren geratzeko aukera: Natalia Redondo gijonda-

rrak mailu-jaurtiketan, Cristina Teixeira madrildarrak pisu-jaurtiketan eta Valvanuz Cañizo kantabriarrak altuera-jauzian. Cañizo 1,65 metro da garai, eta 1,81 metro saltatzeko kapaz da. "Harrigarria da duen ahalmena. Beharbada estatuko hiru jauzilaririk onenen artean egongo da", adierazi du Juan Ignacio Hernandez Bidezabalgo presidentek aurkezpen ekitaldian.

Etxeko atletak

Bidezabalek domekan aurkeztuko duen taldeko atleten %75 bizkaitarrrak dira eta, tartean, Durangaldeko hainbat daude. Oro har, oso gazteak dira, oraindino zailtzen ari diren atletak. Alde horretatik, txapelketa "esperientzia hartzeko oso aukera ona" dela uste du Bidezabalgo Cristina Petitek. "Espainiako txapelketan aurkitu dezaketen maila ezagutzeko balio izaten die. Oso esperientzia aberasgarria da



Hain maila altuan dagoen Bizkaiko talde bakarra da Bidezabal.

Bidezabalek aurkeztuko duen taldeko sei atleta eskualdekoak dira: bost durangar eta berriztar bat

gazteentzat", adierazi du atleta ohi abadiñarrak. Eskualdeko sei atleta arituko dira lehian, eta bost durangarrak dira: Naroa Heredero pertika-jauzian, Aitana Merino 3.000 metroko proban, Itsaso Atutxa 1.500 metrokoan, Ane Rodriguez 3.000 metroko oztopo proban eta

Irene Costa 400 metroko errelebo-ko proban. Seigarrena berriztarra da, Ainhoa Colino, eta martxa-proban parte hartuko du.

Domekako lehenengo proba, mailu-jaurtiketa, 10:00etan hasiko da eta azkena, erreleboko proba, 13:30ean.



Gazteen artean zaletasuna piztea du helburu triatloiak. MUGARRAT

Gazteen triatloiak hamarkada bat beteko du Durangon

Domekan izango da, Mugarra Triatloi Taldeak antolatuta; 2005etik 2011ra bitartean jaiotakoek parte hartu dezakete

TRIATLOIA • J.D.

Gaztetxoen artean kirola sustatzeko helburuagaz, Durangoko Mugarra taldeak triatloia antolatzen du urtero. Aurtengoak hamarkada bat beteko du, domekan.

Durangoko Landako Guneko igerilekuan jarri dute hitzordua, 10:00etan. Bertan egingo dituzte igeriketa saioak. Ondoren, Landa-

ko etorbideko bidegorrian ibiliko dira bizikletan, eta Arripauseta futbol zelai inguratzen duen bidegorrian korrika. 2005etik 2011ra bitartean jaiotako gazteek parte hartu dezakete, eta adin tartearan arabera banatuko dituzte.

Egunean bertan eman daiteke izena, 09:00etatik 10:00etara, igerilekuan bertan.

Uztaiko gimnastak Euskadiko azpitxapeldun geratu dira

Durangoko Landako Kiroldegian jokatu zen txapelketa

GIMNASTIKA ERRITMIKOA • J.D.

Durangoko Uztai taldea Euskadiko azpitxapeldun geratu da gimnastika erritmikoan. Joan zen asteburuan eskuratu zuten zilarrezko domina, Landako kiroldegian, zaleen aurrean lehiatutako proban. Sara Sendinok, Meritxell Mardarasek, Ainara Ruedak eta Maider Ruedak osatu zuten talde durangarra. Taldekako txapelketaz gainera, buruz buruko saioe-

tan ere nabarmendu ziren hainbat gimnasta. Lorea Segovia, Izaskun Intxaurrea, Claudia Muñoz eta Ane Rueda bosgarren postuan geratu ziren, hain zuzen ere.

Kadete mailako txapelketan, Zaldibarko Olazarmendi taldeko Ane Fernandez aritu zen. Lesio luze batetik bueltan, lan txukuna osatu zuen Zaldibarko gimnasta gazteak.



Uztai taldeko nagusien taldea, Durangoko Landako kiroldegian.



Iurretako Heki taldea, Abadiñoako saioan.

Mungiaiko gazteekin egindako talde berria Iurretako sokatira jardunaldian

SOKATIRA • J.D.

Gazteekin osatutako taldeen sokatira jardunaldia antolatu dute domeka goizerako, Iurretako pilotalekuan. Bizkaiko federazioaren ekimenez, Iurretako Heki herri kirol elkarteak antolatu du. Orain hilabete Abadiñon izan zen jardunaldiagaz alderatuta, nobedadeak izango ditu. Batetik, Mungiaiko Larramendi ikastolan sortu duten talde berri bat etorriko da. Bestetik, Nafarroako talde bi ere gonbidatu dituzte: Berriozar eta Andra Mari. Eurekin batera, Abadiñoako eta Iurretako taldeak ere arituko dira, besteak beste 11:30ean hasiko da ekimena.

Abadiño futbol taldea Maila Gorenera itzuli da hiru denboraldiren ondoren

Joan zen asteburuan lortu zuten mailaz igotzea, Gernikan 0-2 irabazita

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Hiru denboraldian horren bila ibili eta gero, Abadiño futbol taldea Bizkaiko Maila Gorenera igo zen joan zen asteburuan, Gernikan 0-2 irabazita.

Oraingoa ez da Abadiño maila horretan jokatu duen lehenengo aldia. 2013an ere Maila Gorenera igotzea lortu zuen, Zaldibarko Zaldia taldeagaz batera. Abadiñoak lau denboraldi eman zituzten bertan, 2017an jaitsi egin ziren arte.

Zalduak, bere aldetik, amaitu du aurtengo denboraldia eta ez daki Maila Gorenean mantentzea lortuko duen ala ez. Bigarren B Mailako jaitsieren eta Hirugarren Mailako igoeren baitan dago hori.



Abadiño jokalariek, joan zen asteburuan, igoera ospatzen, Gernikan 0-2 irabazi eta gero.

Final-laurdenetan Zornotza geratu da bakarrik Bizkaiko herri artekoan

PILOTA • J.D.

Bizkaiko herri arteko txapelketa eskasa izaten ari da eskualdeko herrientzat. Kanporaketa biren ondoren, eta final-laurdenen atarian, Zornotza baino ez da geratzen lehian.

Iaz finalera heldu eta gero, Zornotzak bigarren kanporaketan hasi du txapelketa, eta erraz gaudituz Leioa, sei partidurak irabazita. Final-laurdenetan, Zaratamo izango du aurkari.

Abadiño eta Atxondo hasi eta berehala geratu ziren txapelketatik kanpora. Elorriok eta Iurretak lehen kanporaketa gaudituz zuten, Santurtziren eta Gallartaren aurka, hurrenez hurren. Bigarren kanpoan geratu ziren, Zeanuriren eta Orozkoren kontra.

Jokaldia

June Arbeo
Sarriguarte
Korrikalaria



Ezina ekinez egina

Maiatzarekin batera, unibertitatean gaudenoi azterketa garaia iritsi zaigu, eta, aldi berean, niri pistako denboraldiko lasterketen garaia iritsi zait. Kirol munduan ari garenok badakigu bi gauza hauek ez direla aldi berean aurrera eramateko errazak. Baina, beste aukerarik ez, eta buru-belarri ekiten diogu egunero ikasteari eta entrenatzeari. Egun askotan, astirik ez eta ordu erdiko korrikalditxo eginda dutxa azkar bat hartu eta ikasmahaira itzuli behar izaten dugu. Askotan, lo falta izaten dugu, eta entrenamendu gogor baten ostean azkar afaldu eta berriz ere ikastera itzuli behar izaten dugu. Askok eta askok pentsatuko dute, esfortzu hori guztia, zertarako?

Baina maite dugu egiten duguna, eta ez zaigu axola nekatzea, esfortzu handiagoea egitea, edo indar guztia horretan uztea. Izan ere, "ezina ekinez egina", edo txikitatik entzuten ditugun antzeko esaldiek badute egiatik asko. Duela hiru aste, Donostian izan nuen lehenengo lasterketa, Espainiako ohorezko mailako klub arteko txapelketan. 3.000 metroko oztopotun proban nire denbora hobetzea lortu nuen (10'25"40). Horrekin batera, duela 10 urte zegoen 23 urtez azpiko Euskadiko errekorra 10 segundoan jaitsi nuen. Ondoren, joan den asteburuan, Gijonen, beste lau segundoan hobetu nuen marka. Hasiere ezin hobea izan da, baina argi dago egindako lanaren uza dela. Bi lasterketetan hunkituta iritsi nintzen helmugara. Horrelako momentuak dira eguneroko lanak eta nekeak benetan merezi dutela gogorazten dizutenak. Denbora edo marka bat bakarrik ez, poztasun bat eta hobetzeko eta jarraitzeko nahi bat ere lortzen da horrelako emaitza bakoitzean.

Asteko kirolaria

"Urte hasierako helburuak bete ditugu, baina liga irabazteko moduko taldea geneukan"

Zazpi urteren ondoren, Iker Saenz de la Cuesta Elorrioko Buskantza taldea entrenatzeari utziko dio

Euskal Ligara jaitsi berritan hartu zuen taldea, eta bere gidaritzapean Hirugarren Mailara igo ziren lehenengo, eta Bigarren B Mailara gero. Orain, nekatuta, etapa bat ixteko unea dela erabaki du, baina klubari lotuta jarraituko du.

Zergatik erabaki duzu Elorrioko Buskantza Parra Taberna taldea entrenatzeari utzte?

Jokalaritza talde exigentea izan dut eta ez dut euren konfiantzarik izan. Nekea ere nabaritu dut. Urte asko, lan asko... Gauza asko batu dira. Atsedena merezi nuen eta erabaki hori hartu dut.

Ez duzu jokalarien babesik sentitu? Askotan, ez. Ez dut kexarik, ez da

arrazo nagusia izan, baina bai arrazo bat albo batera egiteko. Bat egindako lantaldea gura nuen eta ez dut lortu hori sortzerik. Beraz, gurago izan dut alde batera egin eta ea besteren batek lortzen duen nik ezin izan dudana.

Zure entrenatzaile ibilbidean parentesi bat da?

Klubean jarraituko dut, han eta hemen lanean, baina ez dut inon entrenatuko. Entrenatzaile lana eta areto-futbola asko gustatzen zaizkit eta zaila da esatea etorkizunean ez dudala entrenatuko, baina datorren denboraldian, behintzat, ez da izango.

Aurten azken unera arte Bigarren B Mailara igotzeko borrokan ibili zare-

te. Kanpotik begiratuta, denboraldi ona osatu duzuela ematen du.

Denboraldi hasieran, hiru onenen artean geratzea zen helburua. Alde horretatik, bete dugu helburua, baina liga irabazteko moduko taldea geneukan. Hainbat arazo izan ditugu. Esaterako, orain hile bi, lau edo bost jokalarik ez zutela taldean jarraituko esan ziguten eta zama horregaz ez da erraza izan txapelkun geratzeko lehiatzea. Pena da liga irabazi ez izana.

Zazpi urtean bizitako zein momentu aukeratu zenuke?

Lehenengo urtea oso polita izan zen. Ni etorri berri, jendea lanerako prest, igoera lortu ge-



IKER
SAENZ DE LA CUESTA

Durango, 1978

nuen... Oso gomuta onak ditut. Iaz Bigarren B Mailan Segorven (Alacant) jokaturiko partidua ere gogoan dut. Zaleak autobusean joan ziren gu animatzera eta, galdu arren, giro itzela bizi izan genuen. Zierbenan Bigarren B Mailako lehenengo garaipena lortu genuen unea ere polita izan zen. Une horiez gainera, urte hauetan ezagutu dudana jendea eta bidelagun izan ditudan ere akorduan ditut.

GARA

PAPEREZKO
EDIZIOA

GARA egunkaria desagertzeko arrisku larria dago!!!

Izan ere, Gizarte Segurantzari 3 milioi euro baino gehiago ordaindu behar baitio bi urteko epean!!!

GARAK 10.000 pertsona solidarioren laguntza behar du desagertzea ez dadin!!!

GARARI laguntzeko harpidetza mota ezberdinak daude.

Beraz, mesedez, egin itzazue zeuen harpidetzak hemen: **943 316 999** telefonoan / Interneten bidez helbide honetan: **www.naiz.eus**





Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

Higiezinak**ETXEBIZITZAK****ETXEBIZITZAK SALDU**

Elorrio. Atiko polita errentan Elorrioren. 50 m². Igogailuarekin. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durango. Hiru emakume arduratsu San Fauston edo Durangon alokairuan dagoen etxe baten bila gabiltza, Tel.: 644 93 06 79

Zaldibar. Zaldibarren, herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

Durango. Durangon atiko txiki bat alokatzen dut, igogailuarekin. Bikoteentzako aproposa. Azokaren inguruan. Hilean 490€. Tel.: 695 74 22 38

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Pisu bila nabil, alokairuan. Pisu

bat alokatu nahiko nuke, Durangon San Fauston, edo lurretan. Kontratoarekin, eta 500-600€ hilabetean ordaintzeko prest nago. Hurrengo telefonora deitu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644 93 06 79

Elorrio. Elorrioko bikote arduratsu bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrioren bertan). Tel.: 688 64 06 04

Alokairuko etxe bila lurretan. Bikote gazte, euskaldun, langile eta arduratsua alokairuko etxe bila gabiltza lurretan. Hemen gure Tel.: 688 64 6023

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauz zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak

zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612-53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 632 35 60 66

LAN ESKAINTZAK**PERTSONAK ZAINDU**

Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. Kaixo, etxeko lanak egiten, zein adineko edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onekoa. Jendearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonengana egokitzeko gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut. Barneko langile moduan lan egiteko prest

HIGIEZINAK**TEKNOLOGIA****LANA/NEGOZIOAK****DENETARIK****IBILGAILUAK****HARREMANAK****AISIA/KIROLA****FAMILIA/ETXEA****NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

nago, adineko pertsonak edo umeak zaintzen edota etxeko lanak eta janaria prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoan. Telefonoz edota whatsappez kontaktatu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644 93 06 79

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak, arropa lisatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin. Tel.: 644 55 83 90

Barneko langilea lan bila.

Emakume arduratsua lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa adineko pertsonak edo haurrak zaintzen lan egiteko nuke. Sukaldean ere aritu naiteke. Berehala hasteko moduan: Tel.: 632 70 52 25

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: Tel.: 643 72 71 98 zenbakira.

Ibilgailuak**AUTOAK**

Land Roverra erosiko nuke! Land rover defenderra erosiko nuke, berdindu ze egoeratan dagoen, itv gabe, aberiatua, golpearekin... Jarri harremanetan, Tel.: 623 17 95 37

GAINERAKO IBILGAILUAK

Mendiko Bizikleta GT Zaskar. Mendiko Bizikleta / MTB / Marka: GT / Modeloa: Zaskar Elite Alum. / Urtea: 2015 / Erruberak: 27,5" / Tel.: 686 214 964

EUSKARAREN ALDEKO INDARRAK BIDERKATUZ



Ekainaren 8an



Pinondo etxean

EGITARAUA:

- 10:00 - Ongietorria eta sarrera**
GUKAko kideen eskutik goizaren nondik norakoak
- 10:25 - Jon Sarasuarekin solasaldia**
Euskal Herriko euskalgintzaren ibilbidea, egoera eta egungo erronkak
- 11:00 - Euskal Herriko esperientziak**
Hainbat antolaketa mota eta dinamika interesgarri world-cafe formatuan ezagutzeko
- 11:45 - Atsedena**
- 12:00 - Taldeko dinamikak**
Durangon zein bilgune behar du euskalgintzak? Zein dinamika parte-hartzaile egin behar ditugu?
- 13:45 - Ondorioak eta amaiera**

DURANGOKO EUSKALTZALE GUZTIAK ZAUDETE GONBIDATUTA. DENON IRITZIA DA BEHARREZKOA. ANIMATU ZAITEZ. ZATOZ!

Botikak

BARIKUA, 31 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 1 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24. - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Urribarri 5 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetorre 2C - **DURANGO**

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 2 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 3 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Urribarri 5 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 4 - 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 5 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetorre 2C - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 6 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, **Julen** denon partez eta ondo pasa zure eguna.



Abadiñoako **Libe** Etxegaraik 4 urtetxo egin zituen maiatzaren 25ean. Mosu handi bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **Txola!** Ondo ondo pasau egune. Asteburuen juerga ederra bota eta astelehenien pasta batzugin etorri.



Zorionak, **Irantzu** zure urtebetetzean. Musu eta besarkada handi bat zure seme Oier eta Aitzol, senar eta gurasoen partez.



Mallabia Cup txapelketan Landako Eskola 2010 taldeko futbolariak lehenengoak geratu ziren euren adinekoren artean. Zorionak gurasoen partez!



Zorionak, **Araia** zure hirugarren urtebetetzean. Mosu erraldoi bat etxekoen eta bereziki Julenen partez.

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 32° / 16° ☀️

ASTELEHENA 🌧️ 20° / 13° ☀️

EGUAZTENA 🌧️ 15° / 11° ☁️

DOMEKA 🌧️ 27° / 15° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 21° / 12° ☁️

EGUENA 🌧️ 20° / 10° ☁️



Goi eta Erdi mailako Heziketa zikloak

Zure Lanerako Bidea

AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 3tik 14ra

→ Kirola

→ Mikroinformatika

→ Erizaintzako zaintza osagarriak

→ Osasun larrialdiak

943 77 20 25 • lanbideheziketa@arizmendi.eus

www.arizmendi.pro.eus

“Arte martzialetan oso saiatua eta sufritua izan behar da”

80ko hamarkadan sortutako Wadokan klubeko kidea da Jose Luis Salas, eta orain hiru urte arte martzialen eskola sortu zuen Durangon. Gerriko beltza du arte martzialetan

Berba bitan

Bidaia bat?
Indiara
Animalia bat?
Arranoa
Amets bat?
Mundu desberdin bat ikusi gura nuke.
Arte Martzialak...
Bizitzeko adibide bat dira.
Liburu bat?
‘Osho. Meditación. La primera y última libertad’

Jose Luis Salas

(Zornotza, 1957)

- Wadokan arte martzialen klubeko kidea

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Oso testuinguru aberatsa duten diziplina dira arte martzialak, eta horretaz jabetzean, harrapatu egiten zaituzte. Halaxe gertatu zitzaion Jose Luis Salasi. Arte martzialen sorlekuan, Japonian, lehiatutakoa da bera, lau urtetan, eta zilarrezko eta brontzezko dominak irabazi izan ditu. Orain dela gutxi, seigarrenez joan da Japoniara, eta maisu izan zuen Yunoki ikusteko aukera aprobetxatu du.

Kasualitatez hasi zinen arte martzialak praktikatzeko. Nola izan zen?

Oso gaztea nintzela hasi nintzen, 14 urteagaz. Gimnastika artistikoa egin gura nuen, baina ez nuen ezer topatu. Azkenean, asko bilatu ondoren, Bilbon taekwondo egiten hasi nintzen, gerriko urdina lortu arte. Gero, karate eta sotokan egiteko aukera zabaldu zen Durangaldean. Durangoko kiroldegian hasi nintzen karatea egiten, 80ko hamarkadan, eta handik eskola sortu genuen Zornotzan. Orduan, lehen txapelketekin hasi ginen, mailak lantzen eta abar.

Ordudanik gelditu barik aritu zara.

Bai. Estatuko, Europako, eta munduko txapelketetan aritu naiz. Estilo berrien bila hasi nintzen: Kenpo Karatean eta Ninjitsuan esperimentatu dut asko. Ninjitsuak asko erakarri ninduen, maitemindu egin ninduen. Madrilen denbora egin nuen ikasten eta trebatzen,

gero Durangaldean horretan lan egiten hasteko.

Zer du berezia Ninjitsuak?

Karatea lez, hezi-garria da Ninjitsuak. Japonian jaio ziren biak, eta errespetua, diziplina, buruko kontrola eta emozio-aldaketak lantzen dituzte, besteak beste. Baina, karatean ez bezala, Ninjitsuan bestelako aparatuek (makilak, soka, sablea...) erabiltzen dira, gimnastika erritmikoan moduan. Oso aberatsa da umeentzat. Askok lantzen da psikomotritzitatea, erreflexuak, buruko kontrola...

Kiroletan futbola nagusi den honetan nolako harrera dute arte martzialek?

Eguneroko borroka dut. Izan ditut neska-mutilak 7 edo 8 urtean lanean ibili direnak, oso trebatuak, gerriko urdina, marroia eta beltza ere lortu dituztenak. Gai direnak bakarrik jarduteko eta irakasteko. Baina, futbola izan dutenean, joan egin dira. Arte martzialetan oso saiatua eta sufritua izan behar da, goi mailara heltzeak lan handia eskatzen du, eta, behin lortuta, askok utzi egiten dute futbolagatik. Umeak trebatzen dituzten kirol oso diziplinatua dira arte martzialak

Japonian egon zarete, entrenatzen eta kulturak partekatzen.

Hainbat maisugaz egon gara, eta teknikak eta entrenatzeko erak partekatu ditugu. Euren eskutik hango kultura ezagutzeko aukera ere izan dugu.

Yunoki maisugaz

ere egon zara, 15 urtean ikusi

barik egon eta gero.

Bai. Asko miresten dut. Hango ninjarik aspaldikoenetarikoa da, eta lan handia egin du. Aktorea ere bada, oso ezaguna han. Bost urtean izan zen nire maisua.

Denbora asko eman duzu Japonian?

Bai. Arroz asko moztu dut han, eta kiwi asko batu ditut. Izan ere, irakatsi aurretik proban jartzen zaituzte han. Irakatsi ahal izateko, hustu egin behar dela diote, eta hustu egiten zaituzte, gero irakasteko. Oso zuzenak dira, oso diziplinatuek. Han egonda bakarrik, asko ikasten da.



Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea



Penagarria

Apirilaren 28an burututako hauteskundeak eta bere inguruan izandako gorabehera guztiak aztertu ondoren, penagarria eta lotsagarria izan da politikari gehienek eman duten irudia. Oso latz eta mingarriak izan dira euren eztarrietatik atera diren hitzak. Bakoitzaren programak azaldu eta defendatu beharrean, aurkaria nola zapaldu eta gutxiarazten xahutu dituzte minutu, ordu eta egun guztiak.

Nabarmena izan da errespetu falta. Non gelditu dira herritarren aurrean eredugarriak izan behar diren politikariak? Akaso ez dago politika eta politikari guztien gainetik pertsona bera? Bakoitzak bere iritzia izan eta defenda ditzake, baina pentsamolde horren ostean gizon edo emakume bat dago eta hau ez da kontuan izan. Ondo dago tendentzia politikoekin ados ez egotea eta bakoitzak berea defendatzea, baina ez bizitza pribatuan sartzea, eta hori ez da bete.

Kanpaina honek ume garaira eramanez nau. Taldeak egiterakoan, onenak gure taldera erakartzeko belarria berotzen ginen trebeenei. Talde politikoei ere berdin jokatu dute. Zenbait politikaririk (baina trebeena izan beharrean moralik gabeko “trepak” izan dira), batere lotsarik gabe, taldez aldatu dira politikatik bizitzen jarraitzeko aukera gehiago zutelako. Hone-lako jarrerekin argi utzi dute ez dutela etikarik eta lau txanponen truke prest daudela edozer edo edozein saltzeko.

Olentzerori politikari zuzen eta eredugarriak izatea eskatzen nion, baina ikatza utzi dit. Zorionez, politikari langile, zuzen eta zintzoak ere badaude eta animoa eta indarra eman nahi dizkiet gizarte hobea lortzeko lan polit honetan buru-belarri ari daitezten.



maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

www.maristak.com

946810058
www.maristak.com



Batxilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarriko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza



HETEL



Batxilergoa
Matrikulak
Ekainak 19tik
Uztailak 5ra

ZIKLOAK
Aurrematrikulak
Ekainak 3tik 14ra
Matrikulak
Uztailak 11tik 17ra

Ezagutu nahi bagaituzu,
deitu eta zita bat eskatu!